



Hizkuntza gutxituak Erresuma Batuan: Euroitunaren aplikazioa

2010-11 ikasturteko sakontze egitasmoa

Bego Ereño Argiarro

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Hizkuntza eskubideak Nazioarteko ordenamenduan
 - 2.1. Nazio Batuek onetsitako araudiak eta
 - 2.1.1. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)
 - 2.1.2. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966)
 - 2.1.3. Ekonomikoa-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna (1966)
 - 2.1.4. Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso eta Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa (1992)
 - 2.1.5. Kultur Aniztasunari buruzko UNESCOren Deklarazio Unibertsala (2001) eta Aniztasuna eta kultura-adierazpideak babesteko eta sustatzeko UNESCOren hitzarmena (2007)
 - 2.2. Europako Kontseiluak onetsitako araudiak eta
 - 2.2.1. Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako hitzarmena (1950)
 - 2.2.2. Gutxiengo Nazionalak Babesteko Hitzarmen markoa (1994)
 - 2.2.3. Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna (1992)
 - 2.3. Europako Batasunak onetsitako araudiak eta
 - 2.3.1. Europako Itun Konstituzionala (2004)
 - 2.3.2. Lisboako Ituna (2009)
 - 2.3.3. Europako Batasunak bideratutako ekimenak
 - 2.4. Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1996)
 - 2.4.1. Aldarrikapenak eragindako berrikuntzak
3. Erresuma Batuari buruzko datu esanguratsu batzuk
 - 3.1. Izena, mugak eta osaketa

3.2. Historia

3.3. Politika

3.4. Garatutako Administrazio Nazionalak

3.4.1. Gales

3.4.2. Eskozia

3.4.3. Ipar Irlanda

3.5. Erresuma Batua European

4. Hizkuntza eskubideen egoera Erresuma Batuan

4.1. Zeintzuk dira Erresuma Batuko hizkuntza gutxituak eta zein egoeratan daude?

4.2.1. Galesa

4.2.2. Eskoziako gaelikoa

4.2.3. Irlandako gaelikoa

4.2.4. Scotsera

4.2.5. Kornubiera

4.2.6. Manxera

5. Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Itunari dagokionez, Erresuma Batuak egindako berrespena

5.1. Euroituna berretsi baino lehenagoko egoera hizkuntza gutxituei dagokienez

5.1.1. Galesa

5.1.2. Eskoziako gaelikoa

5.1.3. Irlandako gaelikoa

5.1.4. Scotsera, Ulsterko scotsera eta kornubiera

5.2. Erresuma Batuak Itunaren inguruan egindako berrespena

5.2.1. Galesa

5.2.2. Eskoziako gaelikoa

5.2.3. Irlandako gaelikoa

5.3. Euroitunaren inguruko azken hitzak

6. Geroagoko beste itun edo akordio batzuk

7. Azken gogoeta

8. Bibliografia

1. SARRERA

Datozen lerroetan garatuko dugun 2010-11 ikasturteko Sakontze-egitasmo honen helburua da Erresuma Batuko hizkuntza gutxituen egoera eta horren inguruan berretsitako Euroituna izendapenez ezagutzen den agiriaren konpromisoak aztertzea.

Horretarako, lehenengo eta behin, hizkuntza eskubideei buruz oro har eta zehazkiago hizkuntza gutxituen eskubideei buruz Nazioartean eta Europan (Nazio Batuen, Europako Kontseiluaren eta Europako Batasunaren bidez) onetsitako lege edo araudiak aztertuko ditugu. Era berean, Erresuma Batuak zer-nolako jokaera izan duen horiekin aipatuko dugu, eta ondorioz, ea horiek sinatu edo berretsi dituzten aipatuko dugu.

Ondoren, gure azterketaren oinarrian dagoen herrialdeari ekingo diogu eta horri buruzko zertzelada batzuk emango ditugu, historiari zein politikari dagokienez, testuingurua hobeto ezagutu ahal izateko. Izan ere, garrantzitsua da ikustea nola eratu zen urteetan zehar guk egun ezagutzen dugun Erresuma Batua, horrek bere isla izango baitu bertako hizkuntza gutxituetan eta horiei egiten zaien aitortzan.

Behin hori guztia azalduta, Erresuma Batuan dauden hizkuntza gutxituak zerrendatu eta horien egoera zein den azalduko dugu. Horrela, hizkuntza bakoitzaren izena eta jatorrizko familia zein den, non hitz egiten den, zenbat hiztun dituen eta zeintzuk izan diren hizkuntza horren bilakaera nahiz statusa laburkiro azalduko dugu, bai eta administrazioan hizkuntza hori nola erabiltzen den, hizkuntzaren aldeko erakunderik duen eta bestelako datu esanguratsuren bat duen ere.

Hurrengo atalean, lehenengo atalarekin berriro bat egiteko, Erresuma Batuak *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren* (Euroitunaren) lehenengo testua idatzi bitartean, gorago azalduko hizkuntza gutxitu bakoitzaren statusean sakonduko dugu (batez ere, irakaskuntza, komunikabide eta epaitegiei dagokienez), geroago, Euroituna indarrean jartzean, horrek galeseran, Eskoziako gaelikoan eta Irlandako gaelikoan izandako ezarpena (alor berberetan) nolako izan zen antzeman ahal izateko.

Ondoren, 2001etik aurrera garatutako administrazio nazionalen hizkuntza gutxituen inguruan egindako beste itun edo akordio batzuk azalduko ditugu.

Bukatzeko, aztertutakoan oinarrituta hausnarketarako edo ondorioak ateratzeko lerro batzuk idatziko ditugu eta erabilitako bibliografia zerrendatuko dugu.

2. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK NAZIOARTEKO ORDENAMENDUAN

Hona hemen pasarte hau aztertzeko orduan kontuan hartu behar dugun lehenengo galdera: Noiz hasi zen kezkatzen gizartea hizkuntza gutxituen inguruan? Adituek diotenaren arabera, kezka horrek XVII. mendearekin egiten du bat, 1648. urtean Westfaliako Biltzarrean gutxiengo erlijiosoen babesaren onartu zenean.

Lehenago, Aro Modernoarekin hizkuntzen garapenean garrantzia izango zuten hainbat faktore gertatu ziren: erresumen sendotzea¹, liturgiaren itzulpena², inprenta³, etab.

Zenbait adituren esanetan, Aro Modernotik aurrera kontrako bi jarrera egon ziren hizkuntzei dagokienez. Bata, Luteroren Erreformak gidatu zuen eta horren arabera, kristauei hizkuntza berdintasuna aitortzen zitzaizkien. Besteak, ostera, Estatu berrietan hizkuntza ofiziala ezarri zuen, latinari eta estatu-hizkuntzak ez ziren berezko hizkuntzei kalte eginez. Horren adibide garbia da 1536ko Ingalaterrako eta Galeseko Batasun Akta. Horren bidez ingelesa izendatu zuten hizkuntza ofizial bakarra, eta ondorioz, galesa familian, komunitatean eta elizan baino ezin zen erabili.

Ondoren, Frantziako Iraultzarekin batera, kontzeptu politiko berria sortu zen: nazioa. Edozelan ere, zoritxarrez, nazioa hitza estatuarekin lotu zen eta horri esker, egun ezaguna zaigun eta askotan okerra den "nazio bat, estatu bat, hizkuntza bat" trinomioa eratu zen.

XX. mendera salto eginda, Lehenengo Mundu Guda amaitu zenean, gutxiengo nazionalistak kideen eskubideak babesten dituzten nazioarteko lehen hitzarmenak agertu ziren, eta bi mundu guden artean beste zenbait lege garatu zituzten. Baina Bigarren Mundu Guda bukatutakoan, nazioarteko ordena berrirako sortu ziren tresna juridiko berriek ez zuten jasotzen gutxiengoaren eskubideei buruzko xedapenik. Izan ere, Alemanian gertatutakoaren ostean,

¹ Erresumak sendotzean hizkuntza batzuek beste batzuek baino indar handiagoa hartu zuten eta.

² Liturgia hainbat herri-hizkuntzataraz itzuli zen eta, zenbaitetan inkontzienteki egin bazen ere, horrek izugarriko garrantzia izango zuen gerora hizkuntza horren garatzeko eta mantentzeko prozesuan.

³ Itzulitakoa zabaltzeko aukera eman zuen eta.

sentimendu nazionalak ez zeuden ondo ikusita eta munduko bakea eta oreka lortzeko, nazioarteak eskubideen babeserako indarra Nazio Batuetan jarri zuen.

Jarraian ikusiko dugun bezala, Nazio Batuen Erakundeak funtsezko eskubideen aldarrikapena egin zuen eta uste zuen gutxiengoetarako herritarrei onartu beharreko eskubideak (baita hizkuntza eskubideak ere) bide horretatik bermatuko zituztela. Baina haiek jasotakoak eragin eskasa izan zuen kultura gutxituetan, kultura eta hizkuntza horiek bigarren mailan geratu baitziren.

Laburbilduz esan dezakegu hizkuntza eskubide edota gutxiengo linguistikoei buruzko xedapenak jasotzen dituzten idazkiak orotara 27 direla. Horietako 11 Nazio Batuek sortu dituzte eta beste 10 Europako erakundeek⁴. Gainera, beste 4 inter-amerikarrak dira eta beste bi 2 Afrikakoak.

Ikus ditzagun, Bigarren Mundu Gudatik aurrera erakundeek⁵ zein itun onetsi eta aldarrikatu zituzten.

2.1. NAZIO BATUEK ONETSITAKO ARAUDIAK ETA

2.1.1. GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA (1948)

Lehenengo eta behin, giza eskubideak aipatu behar ditugu. Izan ere, eskubide horien artean hizkuntzarena ere badago.

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak Parisen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onetsi eta aldarrikatu zuen. Era berean, estatu kideei eskatu zien testua argitaratzeko eta ikastetxeetan lantzeko, herrialde edo lurralde bakoitzaren baldintza politikoak alde batera utzita.

Adierazpen horren bigarren artikuluan hauxe agertzen da:

⁴ Hurrengo atalean ikusiko dugunez, Erresuma Batua Europako Batasuneko kidea da instituzio hori sortu zenetik. Era berean, NATOko kidea ere bada. Beraz, instituzio bi horiek sortutako legeak eta araudiak onetsi beharko lituzke. Baina hori guztia betetzen den ala ez akordio bakoitza aztertutakoan aipatuko dugu.

⁵ Azterketa honetan, Nazio Batuek, Europako Kontseiluak eta Europako Batasunak egindakoak baino ez ditugu aztertuko.

*“Pertsona orok ditu adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, eta ez da inolako bereizkeriarik egingo arraza, larru-kolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, nazio edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide. [...]”⁶.*

Hizkuntza nagusian hitz egiten duten kideek ez dute inolako zalantzarik; haien eskubideak ondo baino hobeto errespetatzen dira. Baina zer gertatzen da hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideekin? Egoera oso bestelakoa da⁷.

Hizkuntza eskubideak diskriminazio edo berezikeria ezaren printzipioarekin lotuta dago eta horiek legez bermatuta daude. Beraz, zuzenean agertzen ez bada ere, hainbat eskubidetan hizkuntza eskubideak urratzea bereizkeria egitea litzateke. Baina hala dela ematen badu ere, estatu asko ez dira kezkatzen mota honetako urraketez.

Hori dela eta, 70. hamarkadatik aurrera hainbat aditu *Linguistic Human Rights* izeneko kontzeptua erabiltzen hasi ziren, argi uzteko giza eskubideak hizkuntza eskubideei ere ezarri beharko litzaizkiekeela.

Aldarrikapen formala idatziz egin zenetik hirurogei urte luze baino gehiago igaro badira ere, hizkuntza eskubideak ez dira behar bezala definitu. Eta hori ezinbestekoa da, bestela, hizkuntza eskubideekin lotutako beste eskubide batzuk ere ez dira errespetatuko; hezkuntza eskubidea, kasurako.

2.1.2. ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN NAZIOARTEKO ITUNA (1966)

Esan bezala, gutxiengoen eskubideak norbanakoaren eskubideen barruan sartu ziren lehenago. Ondoren, gutxiengoen eskubideak, besteak beste, kontuan hartzeko beste tresna batzuk

⁶ HAEEk egindako itzulpena.

⁷ Eta egoeraren larritasunaz ohartzeko gogoratu behar dugu munduan gutxi gorabehera dauden 6.000 hizkuntzetatik ehun bateko hiztunek baino ez dituela bermatuta bere hizkuntza eskubideak eta European bizpahiru estatu kenduta, gainontzeko guztiek gutxitutako hizkuntza bat baino gehiago dituztela.

sortu ziren. Horien artean, 1966ko itun hau dugu. Horren 26. artikuluan hauxe esaten da berriz ere:

*“Pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean eta eskubidea dute, bereizkeriarik gabe, legearen babesa izateko. Hartara, legeak bereizkeria oro debekatuko du, eta pertsona guztiei babes bera eta eragingarria bermatuko die, edozein bereizkeriaren aurka, arraza, larru-kolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, nazio- edo gizarte-jatorria, ekonomia maila edo beste edozein gizarte ezaugarri dela bide. [...]”⁸.*

Eta 27. artikuluan harago doa:

*“In those States in which ethnic, religious or **linguistic minorities** exist, persons belonging to such minorities shall not be denied the right, in community with the other members of their group, to enjoy their own culture, to profess and practise their own religion, or to use their own language”⁹.*

Beste batzuen artean, Erresuma Batuak sinatu eta berretsitako Itunaren artikulua hauek oso korapilatsuak dira. Horietan, ez da zehazten zer den gutxiengoa eta ez du esplizituki jartzen nor bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea duela. Gainera, ezezkoan dago. Hala ere, eskubidea dagoela onartzen du, hori ez ukatzeko beharra ezartzen du eta estatuei neurriak hartzeko beharra ezartzen die.

Azkenik, hizkuntza eskubideak eskubide zibil eta politikoekin lotzen ditu eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak aipatu ere ez ditu egiten.

2.1.3. EKONOMIKOA-, GIZARTE- ETA KULTURA-ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ITUNA (1966)

Aurrekoaren data berean onartu zen eta hizkuntzaren inguruko erreferentzia hau jasotzen du 2. artikuluan:

⁸ HAEEK egindako itzulpena.

⁹ HAEEK artikulua guztiak itzulita ez dituenek, *Office of the United Nations High Commissioner for Human Rights* web gunetik zuzenean hartuta dago.

*"Itun honetako estatu-alderdiek konpromisoa hartzen dute, bertan aipatutako eskubideen egikaritzea bermatzeko, inolako bereizkeriarik gabe, arraza, larru-kolorea, sexua, **hizkuntza**, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, nazio- edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide".¹⁰*

Aurrekoek bezala hizkuntza dela-eta bereizketa egiteko aukera baztertzen du, baina ez du beste ezer gehitzen edo argitzen.

Itun hau ere, Europako beste herrialdeekin batera, Erresuma Batuak ere sinatu eta berretsi zuen.

2.1.4. GUTXIENGO NAZIONAL, ETNIKO, ERLIJIOSO ETA LINGUISTIKOETAKO PARTAIDE DIREN PERTSONEN ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA (1992)

Nazio Batuek gutxiengo linguistikoaren babesari zuzenean begira egindako nazioarteko hitzarmena da, eta gorago jasotako 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikuluan oinarritzen da, baina oraingo honek esplizituki islatzen du gutxiengoaren sustapena babesteko neurriak hartzeko beharra.

*Article 1. States shall protect the existence and the national or ethnic, cultural, religious and **linguistic identity** of minorities within their respective territories and shall encourage conditions for the promotion of that identity.*

Article 2. States shall adopt appropriate legislative and other measures to achieve those ends¹¹.

Oraingoan esan ahal dugu eskubide kolektiboaren aitortza maila apalean egiten dela. Baina, tamalez, ez dauka izaera arautzailerik, aholku emalea baino ez da eta.

¹⁰ HAEK egindako itzulpena.

¹¹ *Office of the United Nations High Commissioner for Human Rights* web gunetik zuzenean hartuta dago.

2.1.5. KULTUR ANIZTASUNARI BURUZKO UNESCOREN DEKLARAZIO UNIBERTSALA (2001) ETA ANIZTASUNA ETA KULTURA-ADIERAZPIDEAK BABESTEKO ETA SUSTATZEKO UNESCOREN HITZARMENA (2007)

Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kultura sustatzeko UNESCO erakundeak egindako aldarrikapen eta hitzarmen hauek, kultura aniztasunaren bermean oinarrituta, hainbat printzipio ezartzen dituzte estatuak bere egin eta garatzeko konpromisoa har dezaten. Baina aurreko aldarrikapenarekin gertatzen zen bezala, bi hauek ere ez dira arautzaileak.

2.2. EUROPAKO KONTSEILUAK ONETSITAKO ARAUDIAK ETA

Europako integrazioaren alde lan egiten duen erakunderik zaharrena da Europako Kontseilua. 1949ko maiatzaren 5ean sortu zen, Londresko Eratze Itunaren bidez eta horren helburu nagusia da bere kide guztien artean batasun sendoagoa lortzea, batez ere, kideen ondare komuna osatzen duten idealak eta printzipioak babestu eta sustatzearren.

Hasierako Itun horren bidez, hamar herrialdek bat egin zuten (horien artean, Erresuma Batua ere bazegoen), baina gerora horiei beste hainbat gehitu zitzaizkien. Era berean, estatu behatzaile batzuk ere badituzte: AEBak, Mexiko, Japonia, Kanada, Vatikanoa.

Ez da Europako Batasunarekin nahastu behar. Hala ere, Europako Batasuneko kide guztiak Europako Kontseilukoak dira¹², baina badaude Europako Kontseiluan hainbat herrialde Europako Batasuna osatzen ez dutenak.

Gorago azaldutako helburu horretaz gain, hiru hauek ere badira erakundearen xedeak:

- Giza eskubideak eta demokrazia parlamentarioa babestea, bai eta zuzenbide estatua bermatzea ere.
- Kontinentean zehar akordioak garatzea, partaideen lege arauak estandarizatzeko.

¹² Bielorrusia eta Kazajistan izan dira Kontseilukoak, erakunde honek sustatzen dituen irizpideekin bateraezina den erregimen politikoa dutelako. Horietaz gain, Vatikanoa ere ez da estatu kidea, behatzailea baizik.

- Kultura-aniztasunean oinarritutako Europaren identitatearen kontzeptua sustatzea.

Gauzak horrela, erakunde horrek hainbat bitartekari martxan jarri ditu xede horiek lortzeko, eta hizkuntzarekin lotura zuzena dutenak honako hauek dira:

2.2.1. GIZA ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK BABESTEKO EUROPAKO HITZARMENA (1950)

“Diskriminatzeko debekua” izena duen 14. artikulua arabera, herri guztiei bermatu behar zaizkie Hitzarmenak biltzen dituen eskubide eta askatasun guztiak, eta ez du onartzen bereizkeriarik hizkuntzarengatik edota gutxiengo nazional bateko kidea izateagatik:

*14. artikulua.- Diskriminatzeko debekua. Hitzarmen honetan aintzatesten diren eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izango direla ziurtatu beharko da, inolako bereizketarik egin gabe, bereziki sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, **hizkuntzagatik**, erlijioagatik, iritzi politikoagatik, bestelako iritziengatik, jatorri nazional edo sozialagatik, gutxiengo nazional bateko kidea izateagatik, aberastasunagatik, jaiotzagatik zein beste edozein baldintzagatik¹³.*

1948an onetsitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritzen den eta Erroman onetsi zen Hitzarmen honek herritar guztien arteko berdintasuna aitortzen du, eta hori hizkuntzen edo gutxiengoaren babesa bereizkeria-ezaren bidez ezartzen du.

Europako Kontseilua osatzen duten kide gehienek sinatu zuten hitzarmena, Andorra, Grezia eta Suitza izan ezik. Baina Espainiak, Turkiak eta Erresuma Batuak, adibidez, ez zuten laugarren protokoloa (kartzelatze zibilari, mugimendu askatasunei eta kanporatzeari buruzkoa) berretsi. Diskriminazioaren inguruan, ordea, ez zuten bestelakorik esan.

¹³ Asmoz web gunean agertzen den itzulpena.

2.2.2. GUTXIENGO NAZIONALAK BABESTEKO HITZARMEN MARKOA (1994)

Hitzarmen Marko honek berrikuntza ekarri zuen; izan ere, 1994ko azaroaren 10ean Ministro Batzordeak onetsitako akordio hau izan zen gutxiengo nazionalen babesa arautzen duen lehena.

Edozelan ere, Markoak ez ditu hizkuntza gutxituak aipatzen, beti definitu gabeko gutxiengo nazionalak ari baita. Horrek ondorio zuzena du: definizioa ematen ez badu, aplikazioa (neurri handi batean), estatuen borondatearen esku uzten du. Eta, zoritxarrez, denontzat ezaguna da haien portaera.

Hitzarmenak 31 artikulua bildu zituen bost ataletan zatituta. Aipa ditzagun horiek laburbilduta, batik bat hizkuntzarekin zerikusia duten atalei garrantzia emanez:

I. atala. Oinarrizko printzipioak ezartzen dira.

II. atala. Berresten duten Estatuak hartzen dituzten konpromisoak.

Hona hemen hizkuntzarekin lotutako zenbait:

5. artikulua: Gutxiengo nazionalak, besteak beste, hizkuntza mantendu eta garatzeko neurriak sustatzeko konpromisoa.

10. artikulua: Gutxiengo nazionalak kideei bere hizkuntza maila publikoan edo pribatuan erabiltzeko eskubidea aitortzeko konpromisoa.

Pertsonen eta administrazioen arteko harremanak gutxiengo hizkuntzan ahalbidetzeko neurriak seguratzeko ahaleginak egiteko konpromisoa.

Atxilotze-arrazoiak gutxiengo hizkuntzan jakinarazteko eskubidea bermatzeko konpromisoa.

11. artikulua: Izen-deitura gutxiengo hizkuntzan onartzeko konpromisoa.

Jendaurrean jartzen diren informazio, seinale eta abar gutxiengo hizkuntzan jartzeko eskubideak aitortzeko konpromisoa.

14. artikulua: Gutxiengo nazionalak kideek gutxiengo hizkuntza ikasteko eskubidea aitortzeko konpromisoa.

III. atala. II. ataleko konpromisoak interpretatzeko jarraibideak. Hartara, gutxiengo nazionalak kideei Estatuetak barne araudia errespetatzeko eskatzen zaie.

IV. atala. Hitzarmena aplikatzeko mekanismoak.

Estatuak hitzarmenaren aplikazioari buruzko txostena igorri behar diote Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari, eta Ministroen Batzordeak aztertu egiten du.

Horretarako, 18 aditu independentez osatutako Aholkularitza Batzorde baten laguntza dute.

Ministroen Kontseiluak Aholkularitza Batzordearen eta Estatuaren txostenak irakurrita ondorioak ateratzen dituzte. Beharrezkoa ikusiz gero, gomendioak egiten dizkiote Estatuari.

V. atala. Hitzarmena indarrean jartzeko xedapenak.

2009rako 43 estatu kidek sinatu zuten Hitzarmen Marko hau eta 39 berretsi zuten. Hala ere, zenbait herrialdek ez dute ez sinatu, ez berretsi; Frantzia, kasurako. Islandia, Belgika, Luxenburgo eta Greziaren kasuan sinatu dute, baina ez dute berretsi.

Erresuma Batuak, ordea, 1998an berretsi zuen Hitzarmen Markoa, baina bertako gobernuak kritika zorrotzak jaso zituen akordioa arrazoi okerengatik sinatu zutelakoan. Izan ere, batzuen ustez, ez zuen sinatu gutxiengo nazionalak babesteko, baizik eta arraza bidezko diskriminazioaren kontra Erresuma Batuak duen konpromisoa azpimarratzeko.

Gainera, oso interesgarria Erresuma Batuak azaldu zuen jarrera. Espainiak ez bezala, Erresuma Batuak gutxiengo nazionalak ere kontuan hartu zituen. Edozelan ere, Erresuma Batuan gutxiengo nazionalaren terminoa juridikoki definituta ez dagoenez, 1976ko Lege¹⁴ bat hartu zuen oinarritzat eta honelaxe definitu zuen: "kolore, arraza, naziotasun (herritartasuna barne) edota jatorri etniko zein nazionalak definitzen duten pertsona taldea". Bertan jasotzen dira gutxiengo etnikoen komunitateak eta jatorri nazionala duten arrazataldeak: eskoziarrak, galesak, irlandarrak. Hala ere, estatuak

¹⁴ *Race Relations Act 1976* delakoan oinarritu ziren.

azpimarratzen du "gutxiengo nazionalak" ez direla baztertzailleak eta galesa izateak ez duela esan nahi zuri aizan behar duzunik .

Ia hamarkada bat geroago, 2006an, Erresuma Batuak *UK Framework Convention Compliance Report* izeneko zirriborroan esan zuen Kornualleseko etnizitatea dela esplizituki baztertutzat jotzen den talde bakarra. Gauzak horrela, 2007ko martxoaren 6an Komunen Ganberan eztabaidatu zuten ea Erresuma Batuko gobernuak Kornualleseko etnizitatea ere Marko horren barruan sartu behar zuen eta 2008ko abuztuan kornubieraren aldeko *Cornwall 2000* taldeak esan zuen proposamen bat aurkeztuko zuela hori gauzatu ahal izateko. Gainera, Hitzarmen Markoko aditu taldea horren alde dago.

Testuari egindako azken aldaketen ostean eta Europako Kontseiluko delegazio batek Belfastera, Edinburgora, Cardiffera eta Londredera egindako azken bisitaren ostean, txostena Erresuma Batuko gobernuari uztailean aurkeztuko omen zaio.

2.2.3. ERREGIO EDO GUTXIENGOEN HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNA (1992)

Euskaraz Euroituna izenez ere (*European Charter for Regional or Minority Languages*) ezaguna den agiri honen helburua da aberastasun kulturala babestea. Hori dela eta, esan ahal dugu ikuspegi kulturean oinarritzen dela, hizkuntza eskubideak babestu baino, esan bezala, kultura babestu nahi duelako.

Euroitunak ez du eskubiderik aitortzen, baina oso interesgarria da hitzaurrean bertan agertzen den honako pasarte hau:

Kontuan harturik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat bizitza pribatuan edo publikoan erabiltzea eskubide preskribaezina dela, Nazio Batuen eskubide zibil eta politikoei buruzko Nazioarteko Itunean jasotako printzipioekin bat, eta Gizakiaren Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako


¹⁵ Horrelaxe agertzen da Erresuma Batuak Marko horren inguruan egindako txostenean. Testua irakurtzeko, ikus: <http://www.communities.gov.uk/documents/communities/pdf/152275.pdf>

*Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren espirituarekin bat (...)*¹⁶.

Beraz, erregio edo gutxiengoen hizkuntzen aitortza horiek erabiltzeko eskubideari buruz ari da, ez hizkuntzen ofizialtasunei buruz. Hori dela eta, eskubide indibidualak edo kolektiboak aitortu ez arren, estatuei betebeharrak ezartzen dizkie hizkuntza horien erabilera bermatze aldera. Erregio edo gutxiengoen hizkuntzak sustatzeko tresna da, eta zeharka baino ezin dugu hartu gutxiengoen hizkuntzen babeserako mekanismo juridiko gisa.

Gainera, posible da estatu batek lurraldeko hiztunen eskubideak aitortu edota bermatzeko ezarri duen legeria Euroituna baino zabalagoa izatea. Baina estatuetak legeria ezin da joan Euroitunak ezartzen dituen printzipioen aurka. Gauzak horrela, estatu bateko legeriak Euroitunaren printzipioekin bat egiten ez badu, moldatu behar dute biak osagarriak izan daitezzen. Hori, hainbat herrialdetan zoritxarrez, teoria baino ez da, praktika oso bestelakoa baita.

Euroituna Europako Kontseiluko 32 estatuk sinatu dute eta Kontseilutik kanpoko Montenegrok. Hala eta guztiz ere, sinatzeaz ez du inolako konpromisorik eragiten; izan ere, sinatu ostean herrialde bakoitzak Ituna berretsi behar du. Egun Europako Kontseiluko 25 herrialdek sinatu eta berretsi dute eta Kontseilutik kanpoko batek, Montenegrok, hain zuzen ere. Beraz, hainbat herrialdetan Euroituna sinatu arren, oraindik ez da inolako konpromisorik hartu.



Irudi horretan, berde ilunez daude Euroituna sinatu eta berretsi duten estatuak. Berde argiz daude sinatu baina berretsi ez dutenak,

¹⁶ Euskaltzaindiaren web gunetik hartuta dago.

zuriz daude sinatu ez dutenak, eta azkenik, grisez Europako Kontseiluko kide ez direnak.

Ikus daitekeen bezala, Erresuma Batua berde ilunez dago; izan ere, geroago zehatz-mehatz ikusiko dugun bezala, 2000ko martxoaren 2an sinatu eta 2001eko martxoaren 27an berretsi zuen Euroituna.

Bestalde, edukiari dagokionez, Itunak 23 artikulua ditu 5 zatitan banatuta. Hona hemen horien azalpen laburra:

1. zatia. Xedapen orokorrak izenekoa da eta bertan definizioa eta gutxienerako betebeharrak agertzen dira. Hona hemen bertan azaltzen diren definizioak:

“a) “Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza” aipatzerakoan, hauek adierazi nahi dira:

i) Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta

ii) hizkuntzak ez dira Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak;

b) “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen den lurraldea” da Gutun honetan aurreikusitako babes-eta sustapen-neurriak hartzea justifikatzeko besteko hiztun-kopurua duen hizkuntzaren geografia-eremua;

c) “lurralderik gabeko hizkuntzak” dira Estatuko gainontzeko biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak, baina Estatuko lurraldean tradizioz hitz egiten diren arren, bertako geografia-eremu jakin bati lotu ezin dakizkionak”¹⁷.

2. zatia. Itunaren helburuak, printzipioak eta konpromiso orokorrak jasotzen dira. Zati honi dagokionez, estatuak ezin dute aukeratu zein hizkuntzari aplikatuko dioten; izan ere, lehen zatiaren definizioan sartzen diren hizkuntza guztiei ezarri behar dizkiete.

3. zatia. Konpromiso zehatzak agertzen dira 7 esparru hauetan sailkatuta: *irakaskuntza (8. artikulua), justizia (9.*

¹⁷ Euskaltzaindiaren web gunetik hartuta dago.

artikulua), administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak (10. artikulua), komunikabideak (11. artikulua), kultura jarduerak eta ekipamenduak (12. artikulua), ekonomia eta gizarte-bizitza (13. artikulua), mugaz haraindiko elkartrukeak (14. artikulua).

Esparru bakoitzean hainbat konpromiso zerrendatzen dira, gutxieneko babesa eragiten dutenetik hasita handienara heldu arte. Estatuak zein konpromiso hartuko duten aukeratu ahal dute, baina gutxienez 35 konpromiso hartu behar dituzte. Gainera, horietatik gutxienez hiruna hartu behar dituzte 8 eta 12 artikuluetatik eta bana 9, 10, 11 eta 13. artikuluetatik.

Aurreko zatian ez bezala, honako honetan estatuak erabaki ahal dute zein hizkuntzari ezarriko dizkieten hartutako konpromisoak.

4. zatia. Aplikazioa zehazten da. Izan ere, Ituna berretsi, konpromisoak hartu eta urtebetera estatuak betetze-mailari buruzko lehenengo txostena aurkeztu behar diote Kontseiluak zehaztutako Adituen Batzorde bati. Adituen Batzordeko kide bat estatuak berak izendatuko du.

Ondoren, estatu horretako legezko erakundeek txostenak Adituen Batzordeari helarazi behar dizkiote beste iritziz batzuk ere kontuan har ditzaten. Guztiak irakurritakoan, Batzordearen bi herenek egoki iritziz gero, bisitak egin ditzakete estatura eta bertako agintari zein erakundeekin bildu.

Dokumentazio guztia aztertutakoan, Adituen Batzordeak azken txostena prestatu eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeari helarazi behar dio. Batzordeak, beharrezkoa izanez gero, ebazpen baten bidez gomendioak egingo dizkio estatuari.

5. zatia. Azken xedapenak jasotzen dira; Itunaren sinatzea eta berrestea, indarrean jartzea, erreserba-aukera eta abar¹⁸.

Esan bezala, geroago ikusiko dugu zein irizpideren arabera onetsi eta berretsi zuen Erresuma Batuak *Erregio edo Gutxiengoan*

¹⁸ Testu osoaren bertsio osoa euskaraz irakurtzeko, ikus:

http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/textcharter/Charter/Charter_baq.pdf.

Eta ingelesez irakurtzeko, ikus:

<http://conventions.coe.int/Treaty/EN/Treaties/html/148.htm>

Hizkuntzen Europako Ituna eta zein konpromiso zehatz hartu zuen definitu zituen hizkuntza gutxituetarako.

2.3. EUROPAKO BATASUNAK ONETSITAKO ARAUDIAK ETA

Kontuan hartzen badugu, Europako Batasunaren (EB) leloa "Batasuna aniztasunean" dela, erraz asko asma dezakegu, hizkuntza aniztasuna dela EBren ezaugarrietako bat.

Baina Europako Batasunaren aitzindaria Europako Ekonomia Elkartea (EEE) izan zen eta batetik bestera igarotzeko prozesuan, honako sei itun hauek gauzatu zituen: 1957ko Erromako Ituna (Europako eraketan aitzindaria), 1986ko Europako Akta Bakarra (aurrekoa aldatzeko eta osatzeko), 1993ko Maastrichteko Ituna (Europako Batasuna gauzatzeko), 1999ko Amsterdamgo Ituna, 2001eko Nizako Ituna (azken bi hauen bidez aurrekoaren aldaketak egin eta kide berriak onartzeko), Europako Itun Konstituzionala eta 2009ko Lisboako Ituna.

1957ko Hasierako Itun hori Belgikak, Mendebaldeko Alemaniak, Frantziak, Italiak, Luxenburgok eta Holandak sinatu zuten, beraz, Erresuma Batua ez zegoen herrialde horien artean, hainbat arrazoirengatik sinatzeari uko egin zion eta. Azkenean, akatsaz ohartuta, negoziazio ugariaren ondoren, 1972an sinatu zuen.

Bigarren Akta (Europako akta bakarra, alegia), berriz, 12 estatu kideek sinatu zuten, baina horietako hainbatetan arazo larriak egon ziren. Esate baterako, Irlandan eta Danimarkan alde aurretik erreferenduma egin zuten, Alemaniako Länderrak aktaren erabat kontra agertu ziren (hezkuntzan eta ingurumenean zeuzkaten eskumenak galtzeko arriskuan ikusi zituztelako), Frantzian xedapen berrien kontra agertu ziren eta Greziako zein Italiako parlamentuetan ika-mika handiak egon ziren.

Honako honekin batera, Erresuma Batuak Maastrichtekoa, Amsterdamgoa eta Nizakoa ere sinatu zituen.

Edukira bueltatuta, guztiek hizkuntzaren inguruko aipamenak egin zituzten. Hala ere, ez zuten hizkuntza eskubideen inguruan ezer zehaztu, erakundearen hizkuntza irizpideen inguruan baizik. Beraz, ez da ofizialtasunaren inguruko ezer esaten, eta ondorioz, bertsio

ofizialak dira erreferenteak. Beraz, itun horiek idatzita dauden hizkuntzaren arabera ematen zaizkie herritarrei hizkuntza horretan aritzeko eskubidea.

Itun guztiek Europako Kontseiluaren¹⁹ eskuetan uzten dute hizkuntza erregimenen gaia eta horrek araudi bakarria prestatu zuen 1958an. Horrela, araudi horretan EEE eratzen zuten estatu sinatzaileen hizkuntza ofizialei status hori eman zitzaien eta estatuak erantsi ahala, horien hizkuntzak ere araudian txertatu ziren.

Hala eta guztiz ere, estatu bateko lurralde osoan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean eta horietakoren bat beste estatu bateko hizkuntza ofiziala denean aldi berean, beste hizkuntza horrek ez du ofizialtasunik izango. Kasu honen barruan daude, esate batera, luxenburgera edo Erresuma Batuan hizkuntza gutxitua den baina Irlandako errepublikan ofiziala den Irlandako gaelikoa.

Gehiegi ez luzatzearen, azken bi itunen azterketa baino ez dugu egingo hemen.

2.3.1. EUROPAKO ITUN KONSTITUZIONALA (2004)

Sinatu ostean, hainbat estatuk ez zuten onetsi, eta ondorioz, ez zen indarrean jarri, beraz, hurrengo ituna izango da batik bat ardatza. Hala eta guztiz ere, ez zen aldaketarik egin printzipioetan.

Europako Itunaren 1.3 artikulua arabera, Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

Dena den, aniztasunaren aipamena ez zen hasierako bertsioan aurreikusi. Are gehiago, EBLULEk (*European Bureau for Lesser Used Languages*) eta Eskualdeetako Batzordeak hainbat proposamen egin zituzten eskubide subjektiboak aitortzeko, hizkuntza gutxituetako kideei eskubide kolektiboak aitortzeko, eta bestelakoetarako. Proposamen guztiak errefusatu zituzten, hizkuntza-aniztasuna errespetatzearena izan ezik.

¹⁹ Kontseilu hau ez da lehenago izen berberarekin aipatutakoa. Honetan, Europako Batasuneko kide diren estatuetakoko buruak eta Europako Batzordeko burua biltzen dira.

Nolanahi ere, definitu gabe dago zein den Europak aldarrikatzen duen aniztasuna. Itxura guztien arabera, estatuei dagokien aniztasuna da. Nolanahi ere, gogoratu behar dugu estatu batzuek (Frantziak eta Greziak, esate baterako) ez dutela inongo aniztasunik onartzen.

Hizkuntzaren araubideari dagokionez, Itunaren 433. artikulua dio Kontseiluak aho batez onartuko duela Batasuneko erakundeek hizkuntza-araubidea ezarriko duen Europako erregelamendua, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Aipatu erregelamendua 1958ko 1. araudia da eta, Europako Elkarrekin Ekonomiarik Dagokio. Horren lehenengo bertsioan lau hizkuntza ofizial ezarri ziren, hain zuzen ere, 1958an EEEn parte hartu zuten lau Estatuak (Frantzia, Italia, Alemania eta Benelux) hizkuntzak. Ondoren, estatu berriek bat egin ahala, 1958ko araudian moldaketa egiten zen estatu horietako hizkuntza ofizialak ere txertatzeko. Itun Konstituzionalak prozedura bera erabiliko du Batasuneko erakundeek hizkuntza araudia ezartzean. Horren arabera, Itun Konstituzionalean jasotzen diren hizkuntzak besterik ez direla kontuan hartuko ikus dezakegu, horixe gertatu baita 1958ko araudia aplikatu izan denean. Baliteke hizkuntza araubidea ezartzeko erregelamendua zehazten dutenean zenbait funtziotarako bizpahiru hizkuntza aukeratzea. Hizkuntza gutxiak, dena den, etorkizunean gerta daitezkeen hizkuntzen arteko lehia horietatik kanpo egongo dira. 1958ko erregelamendua arian-arian moldatu izan dute, estatu berriak EBn sartu ahala, hain zuzen ere, haien estatu hizkuntza ere lan-hizkuntza izateko.

Erresuma Batuak Itun hau ere sinatu zuen, baina geroago, 2004ko apirilean, Lehenengo Ministroa izango zen Tony Blairrek erreferenduma egingo zutela adierazi bazuen ere, ez zen inoiz egin.

2.3.2. LISBOAKO ITUNA (2009)

2007an adostutako baina 2009an indarrean jarritako itunaren 3.3. artikuluan Europako Batasunak kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna zein Europako kultura-ondarearen garapena errespetatuko dituela xedatzen du.

Azken Itun hau, indarrean jarri baino lehen, Erresuma Batuak ere 2007an sinatu eta 2008ko uztailean berretsi zuen, baina ez da osotasunean ezarri. Esate baterako, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna ez da guztiz aplikagarria Erresuma Batuan.

Nahiz eta atal honetan aztertutako itun guztiek hizkuntzaren inguruko aipuak egiten dituzten, argi dago bakarrak ere ez dituela hizkuntza-eskubideak zehazkiro islatzen. Bai, ostera, erakundearen hizkuntza-irizpideak. Gainera, Europako Batasuna ez da sartzen kide diren estatuek ezartzen dituzten hizkuntza-politiketan, barne arazoak direlakoan. Ez da gauza bera gertatzen ekonomiarekin edota bestelako gaiekin, horien inguruan hainbat agindu ezarri ditu eta. Argi dago, beraz, hizkuntzarena ez dela jorratu nahi duten gaia.

2.3.3. EUROPAKO BATASUNAK BIDERATUTAKO EKIMENAK

Esan bezala, hizkuntzarena jorratu nahi ez den gaia izanik ere, badaude Europako Batasunak hizkuntza gutxituen inguruan martxan jarritako hainbat ekimen. Horietako gehienak Batzordean adostutako ebazpenen ondorio dira eta hauexek dira:

-Lehenago aipatutako EBLUL (*European Bureau for Lesser Used Languages*). Europako Parlamentuaren ekimenez 1982an sortu zen, baina erakunde independentea da eta hizkuntza gutxituen interesak sustatzen ditu, baina 2010ean desagertu zen Nazioarteko erakunde gisa.

-EUROMASAIC. Europako Batasuneko talde linguistiko gutxituak hobeto ezagutze aldera, Batzordeak azterketa bat egiteko agindu zuen. Azterketa horren bidez, hizkuntzei buruzko informazioa jaso nahi izan zuen, bai eta hizkuntza horiek garatzeko zituzten arazoak aztertu ere²⁰.

²⁰ Web gune hau eta hurrengoa, besteak beste, hartu ditugu abiapuntutzat hurrengo atalean landuko ditugun Erresuma Batuko hizkuntza gutxituak azaltzeko. Hala ere, geroago ikusiko dugun bezala, hainbat ezberdintasun daude. Euromasaic horretan, kornubiera, gaelikoa, galesa eta irlandera (guztiak izen horiekin baina katalanez) baino ez dira agertzen. Eta jarraian datorren Mercator horretan, ordea, kornubiera, frantsesa, Eskoziako gaelikoa, galesa, irlandera, manxera eta scotsera agertzen dira (guztiak izen horiekin baina katalanez).

-MERCATOR sarea. Hizkuntza eta kultura gutxituei buruzko informazioen trukaketa hobetzea du helburu. Hiru lan ildo ditu: Hedabideak (Galesen), Hezkuntza (Frisian) eta Legeria (Katalunian).

-ADUM proiektua: Hizkuntza gutxituen inguruan lan egiten dutenentzako informazioa zabaldu eta proiektu komunak egiteko sarea.

-2005ean adostutako "Hizkuntza aniztasunerako estrategia berria" dokumentua.

-2006ko urriaren 3an hizkuntza aniztasunari buruzko goi mailako taldea abian jarri zen, eta talde horrek Europako Batasunean aniztasunari buruzko planteamendu orokorrak proposatu dizkio.

-2007ko irailean hizkuntza-aniztasunari buruzko goi mailako taldeak aurkeztutako gomendioak.

2.4. HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA (1996)

Munduko edozein hizkuntzaren, baina batez ere arriskuan zeuden hizkuntzen eskubideak sustatzeko beharra antzemanda, 1993an International Pen Club²¹ erakundearen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordeak Mallorcan ez-ohiko bilera egin eta horretan deklarazio unibertsala egiteari ekin zioten, 1996ko ekainean Bartzelonan egingo zen Hizkuntza Eskubideen Munduko Konferentzian aipatu Deklarazioa onesteko.

Idazketa prozesuan diziplina askotako 50 bat partaide aritu ziren, bai 32 Pen Club, 64 erakunde eta 100etik goragoko gobernuz kanpoko erakunde ere.

Azkenean, Bartzelonan aipatu datan aurkeztu zuten eta bertan 90 estatutako 220 lagunek sinatu zuten.

Deklarazioa onetsitakoan, UNESCO erakundeko Federico Mayor Zaragoza idazkariari helarazi zitzaion eta eskatu zitzaion Deklarazioa kontuan hartzeko. Izan ere, azken helburua argi zegoen; UNESCOk Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrari gomendioa egitea *Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Ituna* bere egiteko edota *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren* osagarri gisa onartzeko.

²¹ Idazleen mundu osoko erakundea.

Lehenengo bi urteetan aurrerapauso interesgarriak eman ziren eta Batzordeak beste xede bat adostu zuen; hizkuntza eskubideei buruzko beste testu bat prestatzea.

Baina Mayor Zaragozak ardura utzi eta Koichiro Maatsurak hartu zuenean, gauzak zeharo aldatu ziren. Lehenago sortutako Hizkuntzen Barrutia desagertu zen ustezko arrazoi ekonomikoengatik eta ordutik ez da UNESCOrekin harreman gehiagorik izan.

2.4.1. ALDARRIKAPENAK EKARRITAKO BERRIKUNTZAK

Aldarrikapen honek ekarritako lehenengo berrikuntza **berdintasun printzipio**arena da; izan ere, 5. artikuluan hiztun guztien berdintasunaren aldarrikapena egiten du.

Gainera, eskubide zehatz batzuk esleitzen dizkie hizkuntza guztiei, hizkuntzen arteko elkarbizitza eta berdintasuna bermatzeko gutxieneko eskubideak zehaztuta:

*Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera **hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren**, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena. Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta, kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntz komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz²².*

Bigarren berrikuntza da²³ Deklarazioak eskubideen babeserako definitzen duen **subjektua**, hau da, ordura arte aipatu ez zen **hizkuntza komunitatea** eta hasieran-hasieran definitzen dena:

*1.- Deklarazio honetan **hizkuntz komunitatea** aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz*

²² Behatokiak egindako itzulpena.

²³ Agian lehenengoa da, Deklarazioaren testuaren hurrenkerari erreparatzen badiogu.

betean eremua errekonozitua izan ala ez finkatua, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia²⁴.

Deklarazio hau erabat berritzailea da zentzu honetan, orain arte aztertutakoek bestelako mailaketak (lurralde hizkuntzak, ofizialak, etab.) egin dituztelako. Honetan, ordea, hori guztia alboratu eta muga politiko-administratibo-ekonomikoetatik kanpo dagoen babeserako subjektua definitzeko ahalegina egiten da, eta horri babes mailarik handiena ematen zaio. Gainera, hizkuntzen arteko errespetua zein elkarbizitza bermatzeko oinarri batzuk ezartzen dira eta mailaketa egiten da eskubideak esleitzerakoan.

Hizkuntza komunitateari bere lurralde historikoan zein eskubide aitortu behar zaizkion zehazten da eta eskubideak mailakatzen dira. Bigarren mailan, beste hizkuntza komunitate batean kokaturik dauden hizkuntza taldeak daude. Haien hizkuntza ez da berezkoa. Horrenbestez, talde horietako hiztunek eskubide murrizagoak dituzte, nahiz eta bien arteko elkarbizitza errespetu osoz eta printzipio demokratikoak errespetatuz egin.

Mailaketa eginda ere, Deklarazioari jarraiki hizkuntza orori aitortu behar zaizkio gutxieneko bermeak eta eskubidea, berdintasun printzipioari eusteko.

Hirugarrenik, **berezko hizkuntzaren** kontzeptua erabili zuen. Ordura arteko ofizialtasuna eta koofizialtasuna alde batera utzi eta aipatu kontzeptua erabili zuen. Horren arabera, hizkuntza baten berezkotasuna honako hau adierazten zuen; lurralde zehatz batean hizkuntza horrek duen antzinakotasun edo historikotasuna. Baina ofizial gisa aintzatetsitako beste hizkuntzen aldean, berezko hizkuntza izateak ez zion ezer eransten²⁵.

²⁴ Behatokiak egindako itzulpena.

²⁵ Definizio horretan oinarritu da Kataluniako Legebiltzarra Hizkuntza Politikari buruzko Legea lantzeko.

Laugarrenik, Deklarazioaren arabera **eskubide indibidualak eta kolektiboak banaezinak eta elkarren mendekoak** dira, bai eta **elkarren osagarri** ere. Hori dela eta, norbanakoen hizkuntza eskubideak ezin dira gauzatu komunitate eta hizkuntza talde guztien eskubideak errespetatzen ez badira.

Azkenik, azpimarratu behar dugu Deklarazioaren testua **eskubideetan oinarritzen dela**, eta ondorioz, ez dela derrigortasun, debeku eta antzeko terminorik erabiltzen.

3. ERRESUMA BATUARI BURUZKO DATU ESANGURATSU BATZUK

3.1. IZENA, MUGAK ETA OSAKETA

Erresuma Batuaren ingeles izena **United Kingdom of Great Britain and Northern Ireland (Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua)** da, baina ingelesez **United Kingdom, UK** edo **Britain** izenekin ezagunagoa da. Europako ipar-mendebaldean dagoen estatu burujabea da. Ingalaterrak, Galesek, Eskoziak eta Ipar Irlandak osatzen dute, bai eta Falkland-Malvinak, Hebrida, Shetland eta Orkney uharteak ere.



Ipar Irlanda da lurreko muga duen erregio bakarra (burujabea den Irlandarekin). Hori alde batera utzita, Erresuma Batua itsasoz inguratuta dago. Iparraldean, Ozeano Atlantikoa du; ekialdean, Iparraldeko itsasoa, hegoaldean, Mantxako Kanala; eta mendebaldean, Irlandako itsasoa.

London Ingalaterrako eta Erresuma Batuko hiriburua da. Eskoziakoa Edinburgh da, Galesekoa Cardiff eta Ipar Irlandakoa Belfast.

Erresuma Batua estatu unitarista da eta lehenago aipatutako lau erregioek osatzen dute. Londresen dagoen sistema parlamentarioak agintzen du, baina beste hiru erregioetako hiriguneetan ere administrazio nazional deszentralizatuak dituzte, botere maila ezberdinekin²⁶, geroago azalduko dugun bezala.

Horretaz gain, Koroaren dependentziak²⁷ eta itsasoz haraindiko hamalau lurralde ere baditu Erresuma Batuak. Ez dute herrialdea osatzen, baina lotura zuzena dute berarekin. Garai bateko Britainiar Inperioaren aztarnak dira horiek; izan ere, 1922an lurreko azaleraren laugarren zatia berea izan zen. Hori dela eta, ingeles eragina oso nabaria da hizkuntzan²⁸, kulturen eta lege sisteman batez ere Inperio hori osatu zuten herrialdeetan, baina baita mundu osoan ere.

3.2. HISTORIA

Lehenago esan dugun bezala, egun lau erregioek osatzen dute Erresuma Batua. Baina ikus dezagun polikiago erregio horiek nola batu ziren, harik eta egungo Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua sortu arte.

1707ko maiatzaren 1an Ingalaterrako Erreinuak (ordurako horren barruan Gales zegoen²⁹) eta Eskoziako Erreinuak bat egitean, Britainia Handiko Erreina sortu zen, aurreko urtean negoziatu zuten Batasun Tratatuari jarraiki. Ondorioz, Ingalaterrako eta Eskoziako parlamentuek tratatu hori berretsi ostean, 1707ko Batasun Akta sortu zuten.

Ia mende bat beranduago, Irlandako Erreinuak ere bat egin zuen beste Batasun Akta baten bidez eta erresuma biek Britainia Handiko eta Irlandako Erresuma Batua sortu zuten 1801eko urtarrilaren 1ean.

²⁶ Geroago ikusiko dugun bezala, gauza bera gertatzen da hiru lurralde horietako hizkuntzekin eta horiek duten botere eta onarpen mailarekin.

²⁷ Horien artean geroago azalduko den Man irla dago.

²⁸ Munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzetan bigarrena da eta.

²⁹ Gales bereganatzeko prozesu politikoa XIII. mendean hasi zen. Ordura arte Gales erreinu multzoa baino ez zen, baina 1282-3an Ingalaterrako Edward I erregeak Gales konkistatu zuen eta 1284ko estatutuaren arabera, ingeles ereduari jarraiki Gales konderrietan banatu eta bertan ingelesa ezarri zuen.

Edozelan ere, Irlandan hainbat arazo zeuden gobernu autonomoa eskatzen zutelako. Horrela, 1918eko hauteskunde orokorretan Sinn Féinek irabazi zuen eta ondoren independentzia guda egon zen. Horren guztiaren ondorioz, Irlanda bi zatitan banandu zen; Irlandako Errepublika Librea eta Ipar Irlanda. Azken horrek osatzen zuten sei konderriek erabaki zuten Erresuma Batuen zati izaten jarraitzea. Hori dela eta, 1927an berriz ere herrialdearen izena aldatu zen egun ezagutzen dugun Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua izateko.

3.3. POLITIKA

Britainiar erregea (erregina momentu honetan) da Estatuburua. Eta monarkia parlamentarioa duten arren, ez dute guztiz definitutako konstituziorik, baina bai lege, estatu, jurisprudentzia eta nazioarteko tratatu multzo bat. Ohiko estatutuen eta konstituzio-legearen artean ez dagoenez ezberdintasunik, lege bat onartzean konstituzioa aldatzen dela esaten da. Hala ere, legealdi batean ezin da etorkizunean aldatzerik ez dagoen legerik onartu.

Bestalde, Erresuma Batuak gobernu parlamentarioa ere badu, Westminster sisteman oinarritutakoa. Westminster jauregian biltzen da parlamentua eta bi ganbera ditu: herriak aukeratutako Komunak Ganbera eta Lord-en Ganbera. Parlamentu honek onetsitako edozein lege erreginarene baimena lortu behar du lege izatera heltzeko. Gainera, Eskozian parlamentu deszentralizatua dagoenez, Ipar Irlandako eta Galeseko Asanbladak subiranoak ez direnez eta Britainiako parlamentuak horiek bertan behera uzteko eskumena duenez, legegintza-organo hori da herrialdeko garrantzitsuenak.

Gobernuburua Lehen Ministroak da eta hauteskunde demokratikoen bidez aukeratzen da, baina Erreginak aukeraketa horri oniritzia eman behar dio. Ondoren, Lehen Ministroak bere Ministro Kontseilua aukeratzen du eta Erreginak hautaketa hori errespetatu ohi du. Botere betearazlea ministroek dute, Lehen Ministroak zuzenduta.

Erresuma Batuko hiru alderdi nagusiak hauexek dira: *Conservative Party* (Alderdi Kontserbadorea), *the Labour Party* (Alderdi Laborista) and *Liberal Democrats* (Demokrata Liberala).

Lehen Mundu Gerratik lehenengo bien arteko lehia nagusitu da. Eta 2010eko hauteskundeetan Alderdi Kontserbadorearen David Cameron jaunak Alderdi Laboristak agintean eman zituen 13 urteei amaiera eman zien.

Aipatu hiru talde horiek 650 aulkietatik 620 lortu zituzten Komunen Ganberan. Gainontzeko jesarleku gehienak herrialdearen zati batean baino lehiatzen ez diren alderdiek irabazi zituzten, besteak beste, *the Scottish National Party* (Eskozian baino ez dago), *Plaid Cymru* (Gales baino ez dago), *the Democratic Unionist Party*, *Social Democratic*, *Labour Party*, *Ulster Unionist Party* eta *Sinn Féin* (azken lau horiek Ipar Irlandan baino ez daude³⁰). Taldeen politikaren arabera, Sinn Féin taldeko parlamentu-kide hautetsirik ez da inoiz aritu Komunen Ganberan bere hautesleen alde hitz egiteko; izan ere, parlamentuko kideek errege/erreginari leialtasuna agindu behar diote. Hala eta guztiz ere, 2002tik Sinn Féin taldeko bost parlamentu-kideek Westminsterreko bulegoak eta beste instalazio batzuk erabiltzen dituzte.

3.4. GARATUTAKO ADMINISTRAZIO NAZIONALAK

1999tik Galesek, Eskoziak eta Ipar Irlandak bakoitzak bere gobernu edo botere betearazlea du (Lehen Ministroaren agintaritzapean), bai eta transferitutako ganbera bakarreko legealdi bat ere. Erresuma Batuko erregiorik handienak, Ingalaterrak, ez dauka transferitutako gobernu betearazlerik edo legegilerik. Hori dela eta, Erresuma Batuko gobernuak eta parlamentuak zuzenean agintzen du auzi guztietan. Egoera horrek *West Lothian question* deritzona eragin du; izan ere, Gales, Eskozia eta Ipar Irlandako parlamentu-kideek batzuetan boto erabakigarria eman dezakete Ingalaterran eragina duten auzietan.

Ikus ditzagun polikiago administrazio nazional bakoitzak dituen berezitasunak.

³⁰ Gogoan izan dezagun Sinn Féin taldea Irlandako Errepublikako hauteskundeetan ere lehiatzen dela.

3.4.1. GALES

The Welsh Government eta *the Nation Assembly for Wales* taldeek Galesen garatu duen boterea mugatua da. 2006ko *Government of Wales Act* aktaren arabera, Asanbladak aukera zeukan *Assembly Measures* izenekoaren bidez garatutako hainbat alorretan legeak egiteko. Horretarako, arlo jakin horretan *Westminsterrek Legislative Competence Orderren* bidez baimen zehatza eman behar zitzaion. Baina 2011ko maiatzaz geroztik Asanbladak legeak egiteko aukera dauka garatutako gaitan *Acts of the Assembly* izenekoari jarraiki, eta ondorioz, ez du alde zurririk inolako baimenik behar. Egungo Galeseko Gobernuak 2011ko hauteskundearen arabera dago osatuta. Horretan, 2009ko abendutik *Labour* eta *Plais Cymru* taldeetako Carwyn Jones Lehen Ministroak agintzen du Alderdi Laboristak duen gutxiengoaren bidez.

3.4.1. ESKOZIA

Eskoziako Gobernuak eta Parlamentuak botere zabala du Erresuma Batuko Parlamentuari espezifikoki "erreserbatu" ez zaizkion hainbat gaitan, adibidez, hezkuntza, osasuna, Eskoziako lege eta tokiko gobernuak. 2007an garaipenaren ondoren, independentziaren aldeko *Scottish National Partyko (SNP)* Alex Salmond buruak gutxiengo botoekin gobernuak eratu zuen eta Eskoziako Lehen Ministroa izan zen. Batasunaren aldeko taldeek SNPk izan zuen arrakastaren kontra jarduteko, *Commission on Scottish Devolution* taldea sortu zuten eta 2009an aholkatu zuten bestelako botere batzuk ere garatu behar zituztela. Horien artean, Eskozian jasotako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen erdiaren agintea ere bazegoen. 2011ko hauteskundeetan *SNP* taldeak berriro ere irabazi du eta Eskoziako parlamentuan gehiengoa lortu du.

3.4.3. IPAR IRLANDA

The Northern Ireland Executive eta *Assembly* taldeek Eskozian garatutako boteren antzerakoak dituzte. Peter Robinson Lehen Ministroak (*Democratic Unionist Party*) eta Martin McGuinness Lehen Ministro Diputatuak (*Sinn Féin*) osatutako diariak agintzen du *The Northern Ireland Executivean*.

3. 5. ERRESUMA BATUAN EUROPAN

Lehenengo atalean ikusi dugun bezala, Erresuma Batua Europako Batasuneko kidea da. Izan ere, 1973an Erresuma Batua Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartu zen eta Europako Batasuna Maastrichteko Itunaren bidez 1992an sortu zuten 12 herrialdeetako bat izan zen Erresuma Batua. Hala ere, ez du zenbait akordio onetsi (Schengengo Akordioa, kasurako) eta bere txanpona izaten jarraitzen du (libera esterlina).

Europako Batasuneko kidea izateaz gain, beste hainbat erakundetako ere bada; Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua (betoeskubidea du), Europako Kontseilua, G8, NATO, besteak beste.

Gauzak horrela, elkarte horien barnean hartutako erabakiak Erresuma Batuak bere egin beharko lituzke.

4. HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA ERRESUMA BATUAN


4.1. ZEINTZUK DIRA ERRESUMA BATUKO HIZKUNTZA GUTXITUAK ETA ZEIN EGOERATAN DAUDE?

Ingelesa da Erresuma Batuko hizkuntza nagusia eta ofiziala (*de facto*, ez *de jure*)³¹. Garai bateko ingelesetik (anglosaxoitik) datorren mendebaldeko hizkuntza germanikoa³² da (ondorioz, hizkuntza indoeuroparra) eta horren antzik handiena frasierak omen du (munduko hizkuntzen sarea eratu duen *Amarauna* web gunearen arabera).

Estatistiken arabera, Erresuma Batuko biztanleen %95 ingelesez elebakarra da (BBCren web gunearen arabera). Horretaz gain, munduan 1.000 milioi bat lagunek hitz egiten omen dute (Erresuma Batuko gobernuaren web gunearen arabera). Hiztun horietako askok (300 milioik) bigarren edo hirugarren hizkuntzatzat ikasi dute, eta ondorioz, horien gaitasun komunikatiboa askotarikoa da.

Edozelan ere, Britainiar Inperioaren zabalkuntzaren ondorioz, Erresuma Batuan ez ezik, beste hainbat lurraldetan ere ingelesa dute lehen hizkuntza.

Horrela, beheko mapan urdin ilunez agertzen diren herrialdeetan ingelesa da ama hizkuntza. Eta berdez agertzen diren horietan ingelesa ofiziala da, baina ez da hizkuntza nagusia.



³¹ Horrek esan nahi du egiatan edo jardutean horrela dela, baina ez legeek horrela agintzen dutelako.

³² Horrek garai bateko nordiko, Normandiako frantses eta latin hizkuntzako hainbat mailegu ditu.

Horretaz gain, Europako Batasuneko eta Nazio Batuen hizkuntzetako bat ere bada.

Gauzak horrela, munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzen artean bigarrena da ingelesa eta horrek zalantzarik gabe izugarritzko garrantzia du beste erregioetako hizkuntzen garapenean eta aitorpenean.

Erresuma Batuko ikasleek eskola garaian (adibidez, Ingalaterran 14 urte bete arte eta Eskozian 16 urte bete arte derrigorrezkoa da eskolan egotea) bigarren hizkuntza bat ikasi behar izaten dute. Hori dela eta, frantsesa eta alemana dira gazteek bigarren hizkuntza gisa gehien ikasten dituztenak.

Nolanahi ere, ingelesarekin batera, Erresuma Batuan badaude elkarbizitzan berezko beste hizkuntza gutxitu batzuk. Hizkuntza gutxituekin gertatzen den bezala, askotan hizkuntzen izendapenak ez datoz guztiz bat; izan ere, batzuek hizkuntzatzat jotzen dituztenak, beste batzuek aldaeratzat jotzen dituzte. Hala eta guztiz ere, zerrenda ditzagun jarraian sarrien aztertzen eta izendatzen diren berezko hizkuntzak³³:

- Galesa
- Eskoziako gaelikoa
- Irlandako gaelikoa
- Scotsera³⁴
- Kornubiera
- Manxera

Horiez gain, Erresuma Batuan dialekto batzuk³⁵ ere badaude, bai eta migrazio mugimenduek Erresuma Batura beste lurralde

³³ Banaketa hori agertzen da, esate baterako, *Amarauna* web gunean eta horretantxe oinarritu gara gure azterketa hau egiteko. Beste aditu batzuek (Mercator web gunean, kasurako) frantsesa ere aipatzen dute Mantxako kanaleko Guernsey eta Jersey irlatan. Baina irla horiek Koroaren dependentziak dira, eta lehenago esan bezala, horiek ez dute lurraldea osatzen, nahiz eta lotura zuzena izan. Gainera, Euroitunaren berrespenean ez dira Koroaren dependentzia bi hauek aipatzen, beraz, guk ere ez ditugu aipatuko.

³⁴ Geroago ikusiko dugun bezala, aditu batzuek aldaeratzat jo izan dute, ez hizkuntzatzat.

³⁵ Anglikanoa, uharteetako zeltikoa, romanian (edo ijitoen hizkuntza).

batzuetatik ekarritako hizkuntza batzuk³⁶ ere. Horien artean, gehien hitz egiten direnak Asiako hegoaldekoak dira, besteak beste, bengalera, punjabera, hindia, gujaratera.

Asiako horiez gain, kantonera, italiara, poloniera, greziera eta turkiera aipa ditzakegu. Gutxiengo etnia hauen % 45 Londresen bertan bizi da.

Baina horiek alde batera utzi eta aztertu ditzagun gorago aipatutako eta hizkuntza gutxitutzat jotako horiek banan-banan.

4.2.1. GALESA

Izena: Galesa (eusk.), Welsh (ingl.), Cymraeg edota y Gymraeg (autoglotonimoa).

Familia: Hizkuntza zelta (indoeuroparra) da, *brythonic* azpimultzokoa.

Non hitz egiten da?: Galesen, batez ere mendebaldeko distrituetan³⁷. Baina Erresuma Batutik kanpo Patagoniako (Argentina) Chubut probintzian dagoen Y Wladfa galesen kolonian ere hitz egiten da.



³⁶ *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunan* ere ez dira horiek hizkuntza gutxitu gisa onartzen, eta ondorioz, itunean xedatutakoa ezin zaie horiei ezarri.

³⁷ Hizkuntza guztiekin gertatzen den bezala, beste hizkuntza bat hitz egiten den lurretatik hurbil dauden tokiak (kasu honetan, ekialdekoak, Ingalaterrarekin mugan daudenak) dira hizkuntza txartoen gordetzen dutenak.

Hiztun kopurua³⁸: 2001eko erroldaren arabera, Galeseko biztanleen % 20,8k hitz egiten du³⁹ (600.000 hiztun gutxi gorabehera)⁴⁰. Horretaz gain, Ingalaterran 150.000 hiztunek hitz egiten omen dute. Erresuma Batutik kanpo, Argentinako Chubut probintzian 5.000 hiztunek hitz egiten dute, AEBetan 2.500ek eta Kanadan 2.200ek.

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: Badirudi K.o. 400 eta 700 urteen artean hasi zela banatzen galesa azpimultzo berekoak ziren beste hizkuntzetatik. Horrela, galesez idatzitako testigantzarik zaharrenak harri batzuetan topatutako IX. mendeko inskripzio batzuk dira. Horren ostean eta Erdi Arora arte, guden inguruko testu batzuk, ipuinak eta testu poetikoak ere gaelikoz idatzita agertu ziren.

1282an Ingalaterrak konkistatu zuenean Gales ordura arte hainbat erreinuren multzoa zen, eta konkistaren ondoren, galesa inolako status barik geratu zen. Mende batzuk beranduago, 1536an, Batasun Aktaren bidez Galeseko Printzerria sortu zuten eta ingelesa ezarri zuten epaitegietan erabili beharreko hizkuntza gisa. Gainera, ingelesez hitz egiten zekitenek baino ezin zuten izan lanpostu publikoren bat, eta galesa familian, komunitatean eta erlijioan bakarrik erabili ahal zela zehaztu zuten. Lege horren eta geroagoko 1542koaren bidez, galesa gero eta baztertuago utzi nahi izan zuten eta pixkanaka-pixkanaka landa-guneetan nekazariak, behe mailako elizgizonak eta artisauek hitz egiten zuten hizkuntza izan zen. Hala ere guztiz ere, garai hartan nahiko hedatuta zegoela esan dezakegu.

³⁸ Hizkuntza gutxitu guztietan ikusiko dugun bezala zaila da hizkuntza horrek zenbat hiztun dituen zehaztea. Beraz, hemen agertutako datuak gutxi gorabeherakoak baino ez dira eta gehienbat 2001eko erroldatik ateratakoak dira.

³⁹ 1991eko erroldaren arabera, % 18k hitz egiten zuen galesa. Beraz, erabilerak gora egin du hamar urte horietan.

⁴⁰ Edozelan ere oso zaila da hiztun kopurua zehaztea; izan ere, batzuetan, estatistiketan ikasketak gales hizkuntzan egin dituztenak sartzen dira eta ez benetan galesa hitz egiteko gai direnak, nahiz eta beste hizkuntza batean ikasi izana. Bestalde, lehen hizkuntzatzat galesa dutenak ere batzuetan ez dira ausartzen esatera hizkuntza hori dakitena. Hau guztia oso ohikoa da hizkuntza gutxitu guztietan eta geroago ikusiko dugun bezala, lan honetan aztertutako guztiekin ere horixe gertatzen da.

Gainera, ematen du 2001eko errolda horretan ez zietela galdetu Galesetik kanpo bizi zirenei ea galeseraz hitz egiteko gaitasuna zuten. Horrenbestez, hiztun kopurua Galesen bizi direnak kontuan hartuta baino ez da atera.

XIX. eta XX. mendeetan, ostera, egoera nahikotxo aldatu zen. Hainbat urtetako legeen bidez, galesaren erabilera mugatu zen. Adibide batzuk aipatzearren, hona hemen honako hauek: 1870eko Hezkuntza Legea, horren bidez hezkuntza publikoa indarrean jarri zen, baina betiere ingelesez. 1889ko Tokiko Gobernuaren Legea, horren bidez ingelesa izan behar zen sortu berri ziren tokiko erakundeetako hizkuntza. 1943ko Galeseko Gorteetako Akta (*Welsh Courts Act*), horren bidez baimendu zen galesa administrazioan eta tokiko epaitegietan erabiltzea. 1967ko⁴¹ eta 1993ko Galeseko Lege Linguistikoak (*Welsh Language Acts*), etab. 1993ko azken horretan esaten da Galesen kontu publikoetan eta justizia-administrazioan galesa eta ingelesa berdintasunean oinarrituta tratatu behar direla.

Bestalde, *Plaid Cymru* izeneko talde politikoari esker, galesa hainbat esparrutan zabaldu zen eta Erresuma Batuko gainontzeko hizkuntza gutxituekin erkatzen badugu, galesa askoz egoera hobean zegoela esan dezakegu.

Gainera, 1998tik beharrezkoa da, besteak beste, Gobernu Departamentu guztiek inprimakiak eta dokumentuak hizkuntza bietan (ingelesa eta galesa) ematea eta zerbitzu publikoetan hizkuntza biei balio zein trataera berbera ematea. Geroago, Erresuma Batuak 2001eko uztailaren 1ean berretsi zuen Euroitunaren (*European Charter for Regional or Minority Languages*) bidez, galesa Galeseko hizkuntza gutxitu gisa onartu du eta hizkuntza horri babes mailarik altuena eman zion.

2010eko abenduan beste aurrerapauso bat eman zen Galeseko Asanbladak aho batez onetsi zituenean galesa hizkuntza ofiziala izateko legea eta hizkuntza hori sustatzeko neurri osagarriak (*The Welsh Language Measure 2010*). 2011ko otsailaren 9an neurri horiek Erreginaren onspena lortu zuten eta horrek esan nahi du monarka konstituzionalak ofizialki Asanbladaren neurri horiek onartu eta aldarrikatu zituela, eta ondorioz, legea egin eta hizkuntza horri ofizialtasuna eman ziola.

⁴¹ 1965ean Hugues-Parry txostenari jarraiki erregio administrazioan galesak ingelesak besteko garrantzia lortu zuen, baina azkenean 1967an sinatu zena txostenean gomendatutakoa baino askoz ere mugatuagoa izan zen eta bakarrik lortu zen epaiketako lekukoei galesa erabiltzeko eta ministroei idazkiak ingelesez egiteko baimena ematea.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Bai.

Justizia publikoan: Bai.

Tokiko administrazioan: Bai.

Toponimia: Elebiduna.

Hezkuntzari dagokionez, 1927ko txostena aipatu behar dugu; izan ere, horretan oinarrituta lortu zen Galeseko ikastetxeetan galesa ezartzea. Txostenaren arabera, ingelesa eta galesa erregio horretan normalean erabiltzen diren hizkuntzak dira, eta ondorioz, eskolako lehenengo urteetan ama hizkuntza jasotzeko printzipioa errespetatu behar da. Hala ere, legea ez zen berehala ezarri. 1948an *Welsh Joint Education Committee* sortu zen, baina 1966ra arte ez zuen galesez idatzitako eskola-libururik argitaratu.

70eko hamarkadaz geroztik makina bat galestar eta galesaren aldeko elkarte lanean ari dira hizkuntza horren alde, eta ehunka ikastetxe sortu dira. Horren ostean, 1983. urtetik, *Education Reform Act* delakoari jarraiki, eskola-ume guztiek galesa ikasi behar dute eta galesa ofizialki babestuta dago 1993ko *Welsh Language Act* eta 1998ko *Government of Wales Act* izeneko bidez.

Horrela, gero eta guraso gehiagok aukeratu zuten bere seme-alabek galesa ikastea, eta 1999. urtean 82.000 izan ziren halako irakaskuntza-mota jasotzen zutenak (*Amaraua* web gunearen arabera). Guztira, 525 bat ikastetxetan irakasten da galesa, eta maila ezberdinetan ikasteko aukera dago. Hori dela eta, gaztetxoengan bai ikusi da galesaren erabilerak gora egin duela, itxura guztien arabera, hizkuntza horretan hitz egiteko motibatuta daude eta.

Galesa ikasi eta hitz egiten duten gazteen kopurua gora eta gora doanez, lehenago aipatutako XIX. eta XX. mendeetako joera azkenaldian gelditu egin dutela ematen du; izan ere, Galesa da Erresuma Batuan hizkuntza gutxietan indartsuena.

Hizkuntzaren aldeko erakundea eta mugimenduak:

Erresuma Batuko gobernuak sortutako *The Welsh Language Board* (*Bwrdd yr Iaith Gymraeg*) erakundearen funtzio nagusia galesaren erabilera sustatzea eta erraztea da.

1960an *Cymdeithas yr Laith Gymraeg* (Galeseko Batasun Linguistikoa) elkartearen lanari esker, ingelesez zeuden hainbat toponimia-kartel aldatu ziren eta bi hizkuntzetan jarri ziren.

Azkenik, beste herri mugimendu batzuk ere aipatu behar ditugu: *Cymuned*, *Mentrau Iaith Cymru* eta *Cymdeithas yr Iaith*.

Bestelakoak: Galesa askotan nazionalismoarekin zuzenean lotu izan da⁴² eta Erresuma Batuko gainontzeko hizkuntza gutxituek ez duten egoera pribilegiatua bizi du.

Pobol y Cwm izeneko telenobela galesa 1974tik ematen da telebistan eta errugbiko partidu garrantzitsuak kenduta, telebistan gehien ikusten den saioa da. Gauzak horrela, galesez grabatzen bada ere, enpresa pribatu batek ingelesera itzultzen du.

Horretaz gain, hizkuntza gaitasuna eta horrekiko hautematea aldatuz doa Galeseko tokiaren arabera. Esate baterako, Cardiffen galesa hitz egiteko gaitasuna edukitzea oso ondo ikusita dago, horrek lana lortzeko erraztasun handiagoa ematen du eta. Erregio horretako beste toki batzuetan, ordea, ez da horrela ikusten.

4.2.2. ESKOZIAKO GAELIKOA


Izena: Eskoziako gaelikoa (eusk.), Scottish gaelic (ingl.), Gàidhlig (autoglotonimoa).

Familia: Goidelic hizkuntza da, familia indoeuoparrekoa⁴³.

Non hitz egiten da?: Eskoziako iparraldean, Outer Hebrides izeneko uharteetan barne.

⁴² Horrek zaildu egiten du hiztun kopurua zehaztasunez ematea; izan ere, hizkuntzaren aldeko askok hitz egiteko gaitasuna dutela baieztatzen dute, baina beti ez da horrela izaten. Hala ere, nazionalistak direlako, baietz erantzuten dute.

⁴³ Jatorrizko Irlandako gaelikotik eratorritakoa da, beraz, gaelikoaren eta manxeraren antza handia du.



44

Leku horietaz gain, Kanadan⁴⁵, AEBetan, Australian eta Zeelanda Berrian ere hitz egiten da.

Hiztun kopurua: 2001eko eroldaren arabera, 60.000 lagunek (Eskoziako hiru urte baino gehiago dituzten herritarren % 1,2) dakite Eskoziako gaelikoz hitz egiten. Baina guztira 92.500 lagunek dute nolabaiteko gaitasuna. Eta goiko irudian ikusi ahal den bezala, Outer Hebrides izenekoetan (urdin ilun-iluna) eta Skye izenekoan (ondokoa, urdin pixka bat argiagoz dagoena) hitz egiten da gehien. Bertan, 25.000 hiztun biltzen dira (azken kopuruaren % 38).

Hirigune nagusietan, ordea, 16.728k hitz egiten dute gaelikoz (azken kopuruaren % 25,4). Beraz, gaelikoz hitz egiten duten hirutik bat tradizioz gaelikoa den gune batean (aipatu berri ditugun irletan eta Highlands izenekoetan) bizi da. Bostetik bat gainontzeko gune gaelikoetan bizi da eta lautik bat hiri nagusietakoren batean.

⁴⁴ Hiztun kopurua nola banatzen den 2001eko eroldaren arabera.

⁴⁵ Eskozia Berriko Eilean Cheap Breatainn-en (Cape Breton irlan), Alba Nuadh-en (Eskoziako Berria) eta Siorrach Gleanna Garadh-en (Ontarioko Glengarry County-n).

Eskoziatik kanpoko datuak hauexek dira: Kanadako Eskozia Berrian 2.000 hiztun daude, AEBetan 1.610 (2000. urteko datuak), Australian 822 (2001eko datuak) eta 669 Zeelanda Berrian (2006ko datuak).

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: K.o. 500 urtean-edo agertu zen gaelikoa Eskozian eta XI. mendeko gaelikoa gutxi gorabehera gaur egungoa da. Malcolm Canmore-ren erregealdian gaelikoak bere indarra galdu zuen eta hainbat tokitan ingelesa nagusitzen hasi zen, scotseraren onerako eta gaelikoaren kalterako. Garai horretan bertan, Eskoziako Gortetik kendu zuten.

XIV. mendean gaelikoa Highlands eta Outer Hebrides uharteetara zokoratu zuten, bertan independentzia politikoak, kultura zeltak eta egitura sozialak oraindik ere bere horretan jarraitzen zutelako.

Baina XV. mendetik XVIII. mendera Eskoziako eta Britainiako parlamentuek hainbat ahalegin⁴⁶ egin zituzten denek, lehenengo aristokratek eta ondoren herri xeheak, ingelesa ikasteko. Eta, esate baterako, 1872ko Hezkuntza Legearekin batera, ingelesa nagusitu zen irakaskuntzan.

Landa mugimendu bati esker, 1886ko Nekazari Txikien Legeari esker (*Crofters' Act*), nekazariei gaelikoz hitz egiteko aukera eman zitzaion eta haiek izan ziren gaelikoaren gotorleku nagusiak. Gaelikoaren aitortza oso astiro eta zati batean egin zuten XX. mendearen bukaeran. Horrela, 1990. urtean Eskoziako Parlamentua berrezarri zenean, gaelikoaren egoerak hobera egin zuen eta beranduago, 2001ean, Erresuma Batuko gobernua *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna (European Charter for Regional or Minority Languages)* berrestean "erregio edo hizkuntza gutxitu" gisa onartu zuen eta hizkuntza horri, galesarekin eta Irlandako gaelikoarekin batera, babes mailarik altuena eman zion.

Geroago, 2005ean Eskoziako Parlamentuko *Gaelic Language (Scotland) Act* izenekoak hizkuntza horri ofizialtasuna eman zion eta hori garatzeko erakundea sortu zuen lehenago: *Bòrd na Gàidhlig*.

⁴⁶ Horien artean, 1616ko Parlamentuko Legea dago. Horren bidez esan zen gaelikoa Eskozian indargabetu behar zela eta bertatik atera.

Edozelan ere, galesarekin erkatuta Eskoziako galekoaren egoera xumeagoa da, hizkuntza honen aldeko aktibismoa galesarena baino berriagoa da eta.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Bai.

Justizia publikoan: Bai.

Tokiko administrazioan: Bai.

Toponimia: Elebiduna.

Gaelikoz hitz egiten duten komunitateak guztiz elebidunak dira eta gaelikoaren erabilera guztiz diglosikoa da. Migrazioa dela eta, gaelikoz hitz egiten duten asko Highlands izenekoetatik eta irletatik joan egin dira.

Egun Lehen Hezkuntzako hizkuntza da eta hizkuntza hori hitz egiten duten eskualdeetako komunikabideetan gero eta gehiago erabiltzen da. Edozelan ere, 2001eko errolda 1991ko erroldarekin erkatzen badugu, argi ikus dezakegu hamar urtetan Eskoziako gaelikoak 7.300 hiztun galdu dituela, eta gainera, hiztun horietako gehienek 45 urte baino gehiago dituztela. Ondorioz, UNESCOk eginiko *Europako arriskupeko hizkuntzen liburu gorria* izeneko txostenean agertzen da gaelikoa egoera larri-larrian dagoela.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak eta mugimenduak:

Gobernuz kanpoko *Comunn na Gàidhlig* erakundea da hizkuntza horren garapen-politiken koordinazioa egiten duena. Bere ekintzek merkataritzaren sektore guztietan eta bizitza publikoan dute isla. Horretaz gain, *An Comunn Gàidhealach* eta lehenago aipatutako *Bòrd na Gàidhlig* ere badaude.

Sarean ere badaude hainbat web gune gaelikoari buruzko informazioa emateko eta hizkuntza hori ikasi ahal izateko.

Bestelakoak: Eskoziako gaelikoaren dialekto batzuk historian zehar hil egin dira, hain zuzen ere, Lowland gaelic izenaren barruan sartu ahal ditugunak eta Lowlands-en hitz egiten zirenak.

Egun Eskoziako biztanle askok uste dute gaelikoa garrantzitsua dela, haien identitatearen zati bat delako. Hala eta guztiz ere,

urteetan “teuchtar” izendapena jaso egin dute (eta oraindik ere hizkuntza horren kontrako ahotik entzuten jarraitzen dute); izan ere, izen gutxiesgarri hori erabiltzen dute gaelikoz mintzatzen direnak izendatzeko.

4.2.3. IRLANDAKO GAELIKOA

Izena: Irlandako gaelikoa (eusk.), Irish gaelic (ingl.), Gaeilge (autoglotonimoa)⁴⁷.

Familia: Goidelic hizkuntza da, familia indoeuroparrekoa⁴⁸.

Non hitz egiten da?: Irlanda uharteko berezko hizkuntza da eta lehenago uharte osoan zehar zabalduta zegoen arren, XI. mendean hasitako ingelesez konkistaren ondoren, ipar-mendebaldeko eskualdeetan hitz egiten da batez ere.



Irlandan ez ezik, AEBetan ere hitz egiten da.

Hiztun kopurua: 2001eko erroldaren arabera, Erresuma Batuan 150.000 bat biztanlek (biztanleek % 10)⁴⁹ hitz egiten dute⁵⁰; Irlandan 1.660.000 hiztunek eta AEBetan 18.000k.

⁴⁷ Irish (ingelesez) edo Erse izenaz ere ezaguna da.

⁴⁸ Eskoziako gaelikoa eta manxera bezala; izan ere, bi horiek Irlandako gaelikotik eratorritakoak dira.

⁴⁹ Egindako ikerketen ondorioz, kopuru hori ematen bada ere, ematen du horietako askok ezagutza mugatua baino ez dutela.

⁵⁰ Gaelikoz hitz egiten duten gehienak nazionalistak eta katolikoak dira.

Ipar Irlandan gaelikoz hitz egin ahal duten gehienak katolikoak diren arren, hainbat protestantek arazo linguistikoetan gogor borrokatu dira gaelikoaren alde⁵¹.

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: Irlandako hizkuntza nagusi bakarra izan da XV. mendera arte, garai horretara arte ingelesen presentzia irlan oso txikia izan zen eta. Baina XVI. mendean Tudorrek ahalegin biziak egin zituzten hizkuntza biak espazioan zein gizartean banatzeko eta ahalegin hori nahiko arrakastatsua izan zen.

Geroago, kolono ingelesen sarraskiak mendekatzeko irlandarrek matxinadak egin arren, Cronwell-en agintaritzapean Ingalaterrak irla okupatu eta lurrak berriro banatu zituen. Horren ondorioz, bertako katolikoek eta kolono protestanteen arteko gerra sortu zen. Banaketa erlijioso horrek gutxiengoa zen anglo-protestanteen eta gehiengoa zen irlandar katolikoek arteko banaketa kulturala finkatu eta elikatu zuen.

XVIII. mendean legeen bidez debekatu zuten katolikoek kontu politiko edo ekonomikoetan parte hartzea eta horrek gaelikoari min handia egin zion.

Ikus daitekeenez, mendeetan zehar hizkuntzaren erabilerak behera egin zuen ingelesen eta britainiarren ondorioz, eta joera horrekin jarraitzeko, XIX. mendean jaitsiera gogorra egon zen hiztun kopuruan 1845-1852 urteetako Gosetearen ostean (urte horietan Irlandak biztanleen erdia galdu zuen bai emigrazioagatik bai heriotzagatik). Gainera, Irlandako gaelikoa hitz egiten zuten lekutan nabaritu zen gehien bat. Horrela, Britainiarren Agintea amaitu zenerako biztanleen % 15ek baino gutxiagok hitz egiten zuen.

Baina 1880an eskala handiko mugimendu politikoa garatu zen eta horrek autonomia aldarrikatu nahiz nazionalismo irlandarraren mugimendu gaztea sortu zuen.

⁵¹ Itxura guztien arabera, protestanteak ingelesaren erlijioa mantentzen dutenez, pentsa daiteke ez direla nazionalistak eta Erresuma Batuko koroarekin bat egiten dutela. Hori ematen badu ere, erlijio biei banaketa askoz ere konplexuagoa da eta gu ez gara ur handi horietan sartuko.

1893an Liga Gaelikoak gaelikoa berrezartzeko helburua hartu zuen, hizkuntza babesteko helburu xumea alde batera utzita. Baina XX. mendean independentziaren aldeko bataila politikoak bataila linguistikoa irentsi zuen. Horrela, 1921ean Irlandan zeuden 32 konderritatik 26ri askatasuna eman zitzaien eta gainontzeko seiak Erresuma Batuen menpe geratu ziren. Ingelesen eta irlandarren gudan zehar behin-behineko gobernuak hizkuntza nazionalerako sail bat ezarri zuen eta horrek estrategia batzuk garatu zituen irlandera berriro ere hizkuntza nazionala izateko, baina Erresuma Batuen menpe geratu ziren sei konderriak garapen horietatik kanpo geratu ziren.

Azken aldian hizkuntza gordetzeko, sustatzeko eta biziberritzeko ahalegin berezia egin da eta 2001ean, Erresuma Batuko gobernuak *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna (European Charter for Regional or Minority Languages)* berrestean "erregio edo hizkuntza gutxitu" gisa onartu zuen eta hizkuntza horri, galesarekin eta Eskoziako gaelikoarekin batera, babes mailarik altuena eman zion.

Edozelan ere, Irlandako gaelikoak Erresuma Batuan gutxituak diren beste hizkuntzek baino laguntza gutxiago jaso du.

Irlandako errepublikan, berriz, Irlandako gaelikoa hizkuntza ofiziala da ingelesarekin batera. Ofizialtasun hori 1920. urtearen inguruan lortu zuen, irlandarrek independentzia lortu zutenean. Horrela izanik, Irlandako errepublikan denek ikasi behar dute gaelikoa hezkuntzan⁵², baina ikasten duten gaelikoa askotan ez da nahikoa eguneroko bizitzan erabili ahal izateko.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Ez.

Justizia publikoan: Ez.

Tokiko administrazioan: Ez.

⁵² Hala bada ere, Irlandako gaelikoaren egoera oso larria da. Batetik, bertako gobernuaren laguntza handia du, eta hezkuntzan irakasten dute Estatu osoan. Baina, bestetik, erabilerak etengabe egiten du beherantz. UNESCOren *Europako arriskupeko hizkuntzen liburu gorria* txostenean esaten denaren arabera, Irlandako gaelikoa egoera larrian dago.

Toponimia: Elebiduna.

Irlandako errepublika sortu arte 1921ean, gaelikoa ikastetxeetako ikasgai bat zen Iparraldean, baina 30eko hamarkadan hezkuntza planetatik kentzen saiatu ziren.

Geroago, lehenengo Belfasten eta ondoren bestelako lekuetan, hainbat haurreskola eta ikastetxetan gaelikoa erabiltzen hasi ziren (batzuk estatuko diru-laguntzarekin eta beste batzuk diru-laguntza barik) eta pixkanaka-pixkanaka gurasoek eredu horren alde egiteari ekin zioten. Egun ikastetxe askotan irakasten da gaelikoa. Eta euskararen kasuan gertatzen den bezala, gero eta gehiago dira txikitatik ikastetxeetan gaelikoa ikasten duten umeak. Hala ere, euskararekin kasuan gertatzen den bezala berriro, erabilera mugatua da eta noizean behin hitzunen gaitasuna ere bai.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak eta mugimenduak: *Foras na Gaeilge* erakundeak arautzen du Irlandako gaelikoa eta atzerrian *Conradh Na Gaeilge* elkarteak sustatzen du. Dena den, gaelikoaren irakaskuntza Iparraldeko Irlandaren Estatuko Ministerioaren (DENI) esku dago.

Gaelikoa hezkuntzan erabiltzeaz gain, irratietan zein telebistan ere erabiltzen da, nahiz eta hedakuntza mugatua duen. 1984an Irlandako gaeliko hutsez idazten zen *Lá Nua* (egun berria, euskaraz) izeneko egunkaria sortu zuten, baina *Foras na Gaeilge* erakundeak esan zuen irakurle gutxi zituenez, ez zuela diru gehiago emango eta 2008ko abenduan itxi egin zuten.

Bestelakoak: Irlandako gaelikoa eguneroko jatorrizko hizkuntza gisa hitz egiten den lekuei *Gaeltacht* izena ematen zaie (bai hizkuntza horretan, bai ingelesez). Horrela, hizkuntza hori lehen hizkuntzat hitz egiten dutenek *Gaeilgeoir* izena hartzen dute.

Mendebaldeko Europako herri-hizkuntza batean idatzitako literatura zaharrena du.

Belfasteko *Caife Glas* izeneko kafetegi-jatetxean gaelikoz hitz egiten dute 1991ean ateari ireki zituztenez geroztik, beraz, leku aproposa da hizkuntza hori praktikatu ahal izateko.

Irlandako gaelikoarekin bukatu baino lehen esan behar dugu gaelikoa beste toki batzuetara ere eramán zutela, batez ere, Eskoziara eta Man irlara. Horren ondorioz, Eskoziako gaelikoa eta manxera sortu ziren, lehenago eta geroago ikusiko dugun bezala.

4.2.4. SCOTSERA

Izena: Scotsera, eskoziera (eusk.), Scots, Lowland Scots⁵³ (ingl.), Braid Scots⁵⁴, Doric, Teri, Buchan Claik⁵⁵, Lallans⁵⁶ (autoglotonimoak). Irlandako scotsera izendatzeko, Ulsterko scotsera (Ulster Scots ingelesez) edo Ullans⁵⁷ izenak erabiltzen dira.

Familia: Hizkuntza zelta (indoeuroparra) da, germaniarren multzokoa⁵⁸.

Non hitz egiten da?: Eskoziako eta Ulsterreko toki batzuetan⁵⁹. Zehazkiago esanda, Eskozian: Lowlanden (beheko lurretan), Iparraldeko irletan, Caithnessen. Eta Ulsterren: Down, Antrim, Londonderry, Donegal izeneko konderrietan, irudian argi ikus daitekeen bezala.



⁵³ Eskoziako gaelikotik bereizteko.

⁵⁴ Lehen hizkuntzatzat dutenek sarritan izen hori erabiltzen dute.

⁵⁵ Hiru horiek dialekto ezberdinetan erabilitako izenak dira.

⁵⁶ Scotsera modernoaren bariante bat da eta askotan erabiltzen da Lallans horrek literaturan hartzen duen forma izendatzeko.

⁵⁷ Neologismoa da, Ulster eta Lallans izenak batzetik sortutakoa.

⁵⁸ Erresuma Batuko hizkuntzen artean ingelesa eta scotsera baino ez dira germaniarrak. Izan ere, lanean aurrera egin ahala ikusiko dugu, zelan scotsera garai bateko ingelesetik datorren eta ingelesa hizkuntza germaniarra den. Erresuma Batuko gainontzeko hizkuntza gutxituak indoeuroparrak eta zeltak dira. Irlandako gaelikoaren, manxeraren eta Eskoziako gaelikoaren kasuan argi dago; izan ere, azken biak lehen horretatik eratorritakoak dira. Kornubiera, aldiz, garai bateko britainiar hizkuntzatik omen dator zuzenean eta britainiarra ere hizkuntza indoeuroparra zen.

⁵⁹ Izan ere, Eskoziatik kolonizatzaileek XII. mendera eramán zuten Irlandako Iparraldera eta bertako hizkuntzari, lehenago esan bezala, Ulster scots esaten zaio.

Hiztun kopurua: Ikerketen eta adituen estimazioak askotan ez datoz bat. Ematen du 200.000 lagunek hitz egiten dutela, baina Eskoziako Gobernuak 2010ean egindako ikerketa bati esker jakin zen erantzun zuten helduen % 85ek hitz egiteko gaitasun-maila ezberdina dutela⁶⁰.

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: Ingelesa bezala, scotsera V. mendetik aurrera germaniarrek Erresuma Batura ekarritako hizkuntzatik dator. Eskoziako lur hauetara VII. mendean heldu zen eta hiriguneetako eta Lowlands izenekoan hizkuntza nagusia izan zen Erdi Arora arte. Gainera, XV. mendearen erdialdean latinaren ordezkari Eskoziako Gortean eta administrazio publikoan ezarri zen eta literaturan ere hizkuntza nagusia izan zen.

XVII. mendean, berriz, protestantea zen James erregea (Eskoziako VI. eta geroago Ingalaterrako I.) saiatu zen Ipar Irlandan zeuden gaelikoz hitz egiten zuten konde katolikoek boterea ahultzen eta gaelikoak hartzen zuten gune kulturala apurtzen. Beraz, Eskoziako protestanteak eta protestante ingelesak lur horietara joan ziren eta haiekin batera haien hizkuntza eraman zuten. Horretatik dator, hain zuzen ere, Ulsterko scotsera izenekoak.

XVI. mendetik aurrera, scotseraz hitz egiten zutenak pixkanaka-pixkanaka ingelesera ekartzen saiatu ziren. Horretarako, erreforma politikoa egin zuten eta Eskoziaren zein Ingalaterraren arteko lotura estutzen joan zen. Gainera, James VI. erregea Ingalaterrako tronora 1603an heldu zen eta koroa biak batu zituen. Horren ildotik, 1707an Eskoziako eta Ingalaterrako parlamentuek ere bat egin zuten, eta ondorioz, scotsera administrazio publikoan zokoratu zuten.

Ingelesarekin duen antzekotasuna dela eta, askotan saiatu dira horretara erakartzen, baina ahaleginak ahalegin oraindik ere bizirik dirau.

⁶⁰ Grimesen arabera (*Amarauna* web gunearen arabera), ostera, lehen hizkuntzatzat 200.000 lagunek dute eta erabiltzen dute; erdiek Eskozian eta beste erdiek Irlandan. Baina beste 1.500.000 lagunek bigarren hizkuntzatzat ikasi dutela ere badio.

1996an *General Register Office for Scotland* izenekoak egindako estimazioaren arabera, ostera, eskoziarren % 30ek (gutxi gorabehera 1.5 milioi hiztun) hitz egiten zuten gaelikoz.

Antzekotasun horrek zailtasun handiak eragiten ditu hizkuntza beregain gisa aztertzeo eta aditu askok ingelesaren aldaeratzat jotzen dute⁶¹. Baina badirudi hizkuntza horren jatorria ez dagoela soilik antzinako ingelesean, baita Eskandinaviako germaniarrean ere (*Amarauna* web gunearen arabera). Gainera, scotserak bere dialekto propioak ere baditu⁶².

Eskoziako Gobernuak 2010ean egindako azterketa batean, % 64k esan zuen ez zuela uste scotsera hizkuntza beregaina zela. Are gehiago, hizkuntza hori dakiten gehienek (% 58) esaten dute ez dela hizkuntza bat. Bestalde, inoiz hitz egin ez dutenek (% 72) uste dute hizkuntza ezberdina dela.

Gauzak horrela, Eskoziako gobernuak "hizkuntza tradizional"tzat jo zuen. Eta Erresuma Batuko gobernuak 2001ean *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* (*European Charter for Regional or Minority Languages*) berrestean esan zuen scotserak Euroitunaren 2. artikuluko 1. idatz-zatian bildutako hizkuntza gutxituen definizioarekin bat egiten zuela, baina ez zuen konpromisorik zehaztu scotserarako.

Eta hizkuntza gutxitzat jotzean, scotsera beste hizkuntza bat zela (ez aldaera edo dialektoa) onartu zuen, eta ondorioz, scotseraz hitz egiteak ez duela esan nahi hizlariak ingelesez hitz egiteko gaitasun gutxi duenik, baizik eta beste hizkuntza batean mintzo dela. *The North/South Language Body* izenekoak ere izendapen hori eman zion.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Ez.

Justizia publikoan: Ez.

Tokiko administrazioan: Ez.

Toponimia: Zenbait lekutan hizkuntza bietan agertzen dira.

⁶¹ Azterketa honetarako oinarritzat hartutako Euromasaic eta Mercator web guneeetan, besteak beste, scotsera ez da hizkuntza gutxituen artean zerrendatzen, beraz, aldaeratzat ematen omen dute eta ez hizkuntzatzat.

⁶² Horietaz gain, beste arrazoi eta faktore batzuk ere badaude hizkuntza beregaina dela esateko; hizkuntza horretan idatzitako literatura zabala izatea eta berezko ortografia izatea, besteak beste.

Eskolaz eta administrazioz kanpoko hizkuntza da, gehienbat familia eta lagunartean erabilitakoa. Beraz, egoera eta hiztun kopurua ikusita, ez da ondo ulertzen nola UNESCOk eginiko *Europako arriskupeko hizkuntzen liburu gorria* izeneko txostenean agertzen den, scotsera arriskuan ez egonik, etorkizunean egon daitekeela.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak eta mugimenduak:

Eskoziari ez dago erakunderik scotseraz arduratzen denik, nahiz eta *Dictionary of the Scots Language* izenekoak autoritate handia duen. Bestalde, 2003ko Eskoziako Gobernuak *Partnership of a Better Scotland* koalizio-akordioak babesa emateko konpromisoa hartu zuen.

Irlandan ere ez dago erakunderik scotseraz arduratzen denik. Hala ere, *Good Friday Agreement* izenekoari jarraiki ezarritako *Implementation Agreement Ulster-Scots Agency* hizkuntza hori erabiliko zuela agindu zuen.

Bestelakoak: Ez da nahastu behar Eskoziako ingelesarekin edota Eskoziako gaelikoarekin, gorago esan bezala, hirurak ezberdinak baitira.

Ingelesarekin hainbesteko antzekotasuna izatea scotseraren garapen eta sustapenerako kontrako faktore bat da zalantzarik gabe.


4.2.5. KORNUBIERA

Izena: Kornubiera (eusk.), Cornish (ingl.), Kernewek edo Kernowek (autoglotonimoa)⁶³.

Familia: Hizkuntza zelta (indoeuroparra) da, *brythonic* azpimultzokoa. Aditu batzuen ustez, garai bateko britainiar hizkuntzatik dator zuzenean.

Non hitz egiten da?: Hizkuntza honekin lotzen den lurraldea Erresuma Batuko hego-mendebaldean dagoena da, egungo Devon eta Kornualles konderrietan (Tamar ibaia da bere mugakidea).

⁶³ Curnoack izenez ere ezaguna da.



Hiztun kopurua: Hizkuntza gutxitu gehienekin gertatzen den bezala, iturri ezberdinetako datuak ez datoz bat eta kasu honetan nahiko deigarriak dira datu batzuen eta beste batzuen arteko aldea. *Amaraura* web gunean esaten da Grimesen 2005eko liburuaren arabera, seihun bat hiztunek hitz egiten dutela. Ingeles bertsioaren wikipediaren arabera, ostera, 3.500 bat hiztunek hitz egiten dute jariotasun nahikoz (eta 2.000k trakeski). Eta Ciemen izeneko web gunearen arabera, ostera, 300 hiztunek baino ez dute hitz egiten⁶⁴. Guztira, Kornuallesekin milioi erdi biztanle ditu.

Dena den, badirudi ume gutxi batzuk elebitan hazi dituztela eta egun ikastetxe askotan irakasten dutela.

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: Zaila da kornubiera aztertzea; izan ere, gure ikuspegitik hizkuntza ekoizteko eta berrekoizteko beharrezkoak diren testuinguru sozial eta instituzionalak ez dira kasu honetan inondik agertzen. Hizkuntza hau hitz egiten dutenen gogo bizia ahaztu gabe, berpiztutako hizkuntza dela onartu beharra dugu; izan ere, hainbat belaunaldi igaro dira hizkuntzaren ekoizpenaren testuinguru ortodoxoaren eta hiztunen belaunaldi berriek egindako ekoizpenaren artean. Beraz, argi dago zaila dela hizkuntza honen azterketa soziologikoa egitea, ohikoa den testuinguru soziala eduki gabe.

V. mendean, anglosaxoiak erromatarrek utzitako lekua hartu zutenean, hizkuntza zeltak desagertzen hasi ziren eta ematen du

⁶⁴ Azken hori, honetan oinarritzen da: *MacKinnon Report, undertaken on behalf of the Government Office for the South West (GOSW)* izenekoan, eta 2000ko datuak dira.

anglosaxoiek eragin zutela toki honetako biztanle askok Ingalaterrara lekuz aldatzea.

XIV. mendean latinak utzi zion hizkuntza bakarra izateari pixkanaka-pixkanaka eta XVI. mendean ingelesa izan zen literaturaren hizkuntza bakarra Kornuallesen. Kornubiera herri xehearen hizkuntzat jo zen eta, galesarekin gertatu ez zen bezala, ez dago kornubieraz idatzitako literatura erlijiosorik. Horrela, XVIII. mendean oso gutxi ziren kornubieraz hitz egiteko gai zirenak eta sarritan esan izan da kornubieraren berezko transmisioa 1777an eten zela, Dolly Pentreath izeneko azken hiztuna hil zenean (*Amarauna* web gunearen arabera). Baina Kornualleseko ezagutza tradizionala zuen azken biztanlea 1890. urtearen inguruan hil egin ei zen (Dunbarren artikulua arabera⁶⁵).

XIX. mendean, berriz, antigoalekoek sortzen zuten interesari jarraiki, hizkuntza berpizteari ekin zioten garai hartan ugariak ziren hizkuntzalari historiek. XX. mendearen hasieran, 1904an, hizkuntzalaritza konparatiboa eta barruko azterketa egin ostean, hizkuntza zeltikoetan aditua zen Henry Jennerrek *Handbook of the Cornish Language* argitaratu zuenean hasi zen berpizkundea. Edozelan ere, bereziki 1980tik aurrera, ahalegin handiak egin dituzte hizkuntza berpizteko eta ahalegin horrekin jarraitzen dute.

Ekonomian eta industrian izandako gorabehera batzuen ondorioz, Kornuallesen nolabaiteko nazionalismo sentimendua sortu da eta horrek hizkuntzan isla eduki nahi izan du; izan ere, identitate zehatza sortzeko oinarritzat hartu izan da hizkuntza. Hala ere, kornubiera inoiz ez da izan masa izugarriak mugitzen dituen hizkuntza.

Horretaz gain, kornubierak hurrengo atalean zehatzago azalduko dugun *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* (*European Charter for Regional or Minority Languages*) izenekoaren bidez hizkuntza gutxituaren estatusa lortu zuen, baina ez bere

⁶⁵ Dunbar, Robert (2003): "The ratification by the United Kingdom of the European Charter for Regional or Minority Languages" in MERCATOR (<http://www.ciemen.cat/mercator/>). Horretan oinarritu gara azterlan honen 5.1 eta 5.2 atalak idazteko.

lehenengo bertsioan, baizik eta Europako Kontseiluak egindako adierazpen baten ostean, 2003an.

Bestalde, 2008an estandarizatutako forma idatzia adostu zuten berpizkundearekin jarraitzeko eta ortografia forma bakarrera ekartzeko.

Kornuallesko Erregio Kontseiluak diruz lagundutako ikastaroei esker hiztun kopuruak gora egin du. Horiek nolabaiteko arrakasta lortu zuten 70eko hamarkadan, baina kexa ugari egon dira irakasteko moduei buruz, batik bat idazkeraz arduratzen zirelako eta ez ahozkoaz (batez ere, corpusaz arduratu dira eta ez statusaz, beste hizkuntza gutxitu batzuetan gertatzen den bezala).

Irakasle nahikoa lortu direnetik, Lehen Hezkuntzako eskoletan kornubiera ikasteko laguntzak eman dira, baina kontu linguistikoei buruzko barne arazoengatik oztopo ugari izan dituzte. Gauzak horrela, ikastetxe batzuetan aisialdi-ekintzetan irakasten da kornubiera.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Ez.

Justizia publikoan: Ez.

Tokiko administrazioan: Ez.

Toponimia: Gehienbat ez, baina noizean behin bai.

Zenbait tokitan kartelak kornubieraz agertzen badira ere, ekintza horiek gehiago lotzen dira bultzatu nahi den turismo kulturalarekin eta ez argi dagoen hizkuntza politikarekin.

Komunikabideei dagokienez, zertxobait erabiltzen da, baina hizkuntza bat sustatzeko hutsaren hurrengoa dela esan dezakegu, ingelesa erabat nagusia da eta.

Zenbait familiek komunikatzeko hizkuntza nagusitzat erabiltzen dute, nahiz eta hiztun kopurua oso murrizta izan. Gainera, biztanle guztiek nolabaiteko sinpatia diote kornubierari, "ezberdintzeko" elementutzat jotzen dutelako kornubiera. 1981erako 1.000 lagunek noizbait kornubiera ikasteko eskoletara joan dira, nonbait.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak eta mugimenduak: 1967an *Kesca and Tavas Kernewek* sortu zen hizkuntza hau irakasteko eta horren irakaskuntza sustatzeko. Geroago, *Kernewek* (1901), *Mebyon Kernow's* (1951) eta *Dalleth* izeneko mugimenduak sortu ziren, irakaskuntzan kornubiera sustatzeko.

2008an *The Cornish Language Partnership* sortu zen idazteko era estandarraz arduratzeko eta Erresuma Batuko gobernuaren diru-laguntza jasotzen du.

Interneten, badago kornubierari buruzko informazioa jasotzeko eta kornubiera ikasteko hainbat aukera; besteak beste, *Warlinennen* web gunea.

Bestelakoak: Bitxia bada ere, hizkuntza berreskuratzeko egin diren ahaleginen ondoren, gaur egun hiru kornubiera daude: modernoa, batua eta arrunta izenekoak. Hori dela eta, eztabaida gogorak daude hiru era horiek defenditzen dituzten artean; izan ere, ez dira ados jartzen erabakitzean horietako zein datorren antzinako kornubierarekin bat.

Askotan aipatu izan dan kornubieran hizkuntza bat berrezartzeko adibidetzat; izan ere, hizkuntza gutxitu hau nolabait berrezartzea lortu da batez ere gizarte laguntzaren bidez eta gutxieneko laguntza publikoen bidez.

4.2.6. MANXERA

Izena: Manx (eusk.), Manx gaelic eta Manks language (ingl.), *Gaelg* or *Gailck* (autoglotonimoa).

Familia: Goidelic hizkuntza da, familia indoeuroparrekoa⁶⁶.

Non hitz egiten da?: Man uhartean⁶⁷.

⁶⁶ Irlandako gaelikotik eratorritakoa da, beraz, horren eta Eskoziako gaelikoaren antza handia du.

⁶⁷ Man uhartea Britainia Handiaren eta Irlandaren artean dago, eta bertan 77.000 lagun inguru bizi dira. Ez da Erresuma Batuko estatuetako bat, baizik eta Koroaren dependenzietako bat.



Hiztun kopurua: 2001eko erroldaren arabera, 76.315 biztanletik 1.689k (% 2,2) esan zuten manxera nolabait bazekitela, ezagutza-maila askotarikoa izan arren.

Hizkuntzaren bilakaera eta statusa laburkiro: 1974an hil zen manxera lehenengo hizkuntzatzat zuen Ned Maddrell izeneko azken hiztuna.

2001eko Wurmenean liburuan hiltzat jo zen hizkuntza hau⁶⁸. Era berean, UNESCOk agindutako *Europako arriskupeko hizkuntzen liburu gorria* izeneko txostenean ere gauza bera esaten da. Hala ere, azken urteotan hizkuntza berpizteko hainbat ahalegin egin dira.

Gainera, hizkuntza hau jendaurreko zenbait ekitalditan ere erabiltzen da, baina era sinbolikoan, batez ere. 1985ean forma estandarra egiteari ekin zioten.

Azkenik, Man Irlako Ituna onartuta, manxera ere hizkuntza gutxitutzat jo zuen 2003an Erresuma Batuak *Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunaren* bidez.

Erabilera laburkiro:

Administrazio publikoan: Bai.

Justizia publikoan: Ez.

Tokiko administrazioan: Bai.

Toponimia: Elebiduna.

⁶⁸ Agian hori dela-eta Euromasaic web guneak ez du hizkuntza gutxituen artean aipatzen. Edozelan ere, beste arrazoi bi ere egon liteke ez aipatzeko; Irlandako gaelikoaren aldaeratzat jotzea (esan bezala, irlandarrak Man uhartera gaelikoa eraman ei zuten eta horren bilakaeratik sortu ei zen manxera) edo berez Erresuma Batukoa ez izatea, Koroaren dependentzia baizik.

Nahiz eta irla horretako biztanle gutxik dakiten manxera jariotasunez hitz egiten, irlan nahiko begi-bistakoa da hizkuntza hori, kaleetako seinaleei eta irratiei esker, besteak beste. Gainera, egun umeak haurreskolan manxera ikasi ostean, St. John'seko Bunscoil Ghaelgagh ikastetxean aritu ahal dira manxeraz ikasten 4 eta 11 urte bete bitartean.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak eta mugimenduak:

Coonceil ny Gaelgey (Batzorde gaelikoa) izenekoak arautzen du.

Bestelakoak: Hildako hizkuntza nolabait berpiztu ahal izan dute hizkuntza oso ondo dokumentatuta egon delako. Adibidez, Biblia manxeraz itzulita egon da eta jatorrizko hitzun askoren grabazioak ere gorde dira.

5. ERREGIO EDO GUTXIENGOEN HIZKUNTZEN EUROPAKO ITUNARI DAGOKIONEZ, ERRESUMA BATUAK EGINDAKO BERRESPENA

Aurreko atalean ikusi ahal izan dugun bezala, Erresuma Batuko hizkuntza gutxitu bakoitzaren egoera oso ezberdina da. Ezberdintasun horiek faktore askoren ondorio dira (scotseraren kasuan, ingelesarekin duen antzekotasuna; Irlandako galikoaren kasuan, irlandar nazionalismoarekin izandako etengabeko arazoak, etab.), baina kasu guztietan argi dago Erresuma Batuko politikak mendeetan zehar hizkuntza horien kontra aritu izan direla. 1999an Administrazio Nazionalak garatu arte, Erresuma Batuan hizkuntza gutxituen arazoa ez zen arazo larria izan gobernuarentzat eta hizkuntza horien aldeko mugimenduren bat sortu izan bazen, estatuak hizkuntza gutxitu edo erregio horien kontra egindako politikei erantzuteko herritarrek sortutakoa izan zen batik bat (galesaren kasuan, esate baterako).

1999ko deszentralizazioak, ordea, aukera eman zuen deszentralizatutako erakunde horietan hizkuntza gutxituekiko koherenteagoak diren politikak garatzeko⁶⁹. Izan ere, deszentralizazioarekin Westminsterren baztertuta zeuden hainbat gai eztabaidatzeko aukera izango dute, nahiz eta gauza guztiak bezala, hizkuntzarena ere egokitasun politikoaren araberrako eztabaida izan.

Bestalde, ez dugu Nazioarteko ordenamendua ahaztu behar. Giza eskubideez arduratu ostean, hizkuntza eskubideei heldu zitzaizen txanda. Horrela, lehenengo atalean aztertu dugun bezala, Nazio Batuak, Europako Kontseilua eta Europako Batasuna, besteak beste, hizkuntzaz nolabait arduratzen hasi ziren eta hainbat itun eta araudi adostu zituen. Horietako bat, aberastasun kulturala babesten duen 1992ko *Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna* edo Euroituna izan zen. Behin baino gehiagotan azaldu dugun bezala, Erresuma Batuak 2000ko martxoaren 2an sinatu eta 2001eko martxoaren 27an berretsi zuen.

⁶⁹ Honen ondorio izango dira aurreko atalean labur-labur azaldutako 2010eko abenduan Galeseko Asanbladak aho batez onetsitako *The Welsh Language Measure 2010* (horren bidez galesari ofizialtasuna eman zitzaion 2011ko otsailaren 9an Erreginak onespina eman ostean) eta 2005ean Eskoziako Parlamentuak onetsitako *Gaelic Language (Scotland) Act* (horren bidez Eskoziako gaelikoa sustatzeko legea sortu zuten eta hori garatzeko erakundea sortu zuten: *Bòrd na Gàidhlig*).

Baina Euroituna Erresuma Batuan hasiera batean nola ezarri zen aztertu baino lehen, berraztertu dezagun Ituna sinatu arteko⁷⁰ lehenago azaldutako hizkuntza gutxituen egoera⁷¹ zein izan zen, batez ere, hezkuntza, komunikabide eta justiziako alorrei dagokienez.

5.1. EUROITUNA BERRETSI BAINO LEHENAGOKO EGOERA HIZKUNTZA GUTXITUEI DAGOKIENEZ

5.1.1. GALESA

Erresuma Batuko hizkuntza gutxituen artean, hauxe da estatuko politiken bermerik handiena lortu duena.

Galesaren kontrako politikak 1940ko hamarkadan eten zituzten eta 1941ean Galeseko Gorteko Legearen ondorioz lortu zuten galesa epaitegietan nolabait erabiltzea. Bestalde, 1944ko Hezkuntza Legea ere badago eta horrek aukera eman zuen galesa ikastetxeetan ikasteko. Geroago, 1967an garai hartara arte epaitegietan galesa erabiltzeko zeuden neurri murriztaileak deuseztatu zituen.

Bestalde, komunikabideen alorrean 1980 eta 1981ean *Sianel Pedwar Cymru* irratia ezarri zen eta 1982an galesez emititzen zuen telebista (biek gobernuaren diru-laguntzak jasotzen zituzten). Ondoren, Westminsterreko hiru legek galesaren egoera hobetzeko pausu nabariak eman zituzten. Aipatu legeak hauexek dira: 1988ko Hezkuntzaren Erreformatarako Legea (*Education Reform Act*), 1993ko Galesa Hizkuntzaren Legea (*Welsh Language Act*) eta 1998ko Galeseko Gobernuaren Legea (*Governement of Wales Act*).

Hezkuntzan galesa irakasten 1940 eta 1950 urteen bitartean hasi baziren ere, Erreformataren ostean, gorakada izugarria nabaritu zen. Garai hartako gobernuaren helburua izan zen gazte batek derrigorrezko hezkuntza bukatzen zuenerako galesa jarioz gaitasunez erabiltzeko gaitasuna izatea.

⁷⁰ Hizkuntza gutxitu horiek ez ditugu, beraz, aztertuko gaur eguneko egoerara arte, baizik eta Euroituna lehenengoz ezarri arte.

⁷¹ Hemendik aurrera manxera alde batera utziko dugu; izan ere, Irlandako gaelikotik eratorritako hizkuntza bada ere, Man irla Koroako dependentzietako bat da eta ez estatuko administrazio deszentralizatuetako bat.

Auzitegietan ere gauza bera gertatu zen, lehenago aipatutako 1967ko Lege hori ezarri zenetik; izan ere, aurrerapauso nabariak eman ziren.

Gainera, galesaren inguruko Kontseilua sortu zen, Galeseko organismo publikoek jendaurrean eman beharreko zerbitzuen prestaketan aritzeko. Prestatze-lan horietan kontuan izan behar zuten, ingelesa eta galesa modu beran tratatu behar zituztela; berdintasunean oinarrituta, alegia. 2003ra arte 200 bat hizkuntza-plan onetsi zituzten eta horiek hainbat organismo publikotan (suhiltzaileak, poliziak, justiziako sektorea, kasurako) izan zuten eragina. Era berean, galesaren erabilera sustatzen zuten ekintza linguistikotarako (liburuak argitaratzea, jaialdi kulturalak, etab.) diru-laguntzak ematen zituzten.

Bestalde, 1998ko Galeseko Gobernuaren Legearen 32. artikulua ere badago. Bertako c) idatz-zatian esaten da galesa sustatzeko asmotan, Gales Erregiorako Asanblada Nazionalak egoki irizitakoa egin zezakeela.

Eta bukatzeko, 2002ko abenduan Gobernuko Asanbladak landutako *Iaith Pawb* agiria aipatu behar dugu. Ekintzarako Plan Nazionala izan zen eta bertan galesa sustatzeko ekimen zehatzak eta 2011. urterako bete beharreko xede batzuk zerrendatu ziren; esate baterako, 2001eko erroldarekin erkatuta galesa hitz egiteko gai direnen kopurua % 5 igotzea.

5.1.2. ESKOZIAKO GAELIKOA

1980. urtearen erdialdera arte, gaelikoak ia ez zuen gobernuaren laguntzarik txikiena ere jaso. Ordutik aurrera ere, lege gutxi batzuek baino ez zuten bere alde egin eta estatutik hizkuntza sustatzeko jaso zuen dirua askoz ere eskasagoa izan zen galesarekin erkatzen badugu. Beraz, alor guztiak konparatuta, galesarekin duen aldea oso nabaria da, gaelikoaren kalterako.

Hezkuntza ezin izan zen gaelikoz jaso 1985era arte, orduantxe hasi baitziren Glasgoweke eta Invernesseko eskola banatan erabiltzen. Ia hogeit hamar urte beranduago, 2002-03 ikasturtean, ostera, Lehen Hezkuntzako 2.000 bat ikaslek jasotzen zuten eskoletan.

Goragoko mailetan, Bigarren Hezkuntzan, 400 bat ikaslek baino ez zuten ikasten eta ez ikasgai guztien bidez. Beraz, ordura arte derrigorrezko hezkuntza guztia ezin zen gaelikoz jaso.

Galesen ez bezala, hezkuntzan egindako hedakuntza horrek ez zeukan zehazki artikulatutako oinarri legal edo politikorik, eta batez ere, gaelikoa sustatzeko interesa zuten gurasoen ahaleginei esker gauzatu zen. Gurasoen lanarekin batera, udaletakoa ere aipatu behar da, haien beharra baitzen hezkuntza eskaintzea.

Gauzak horrela, galesaren emaitza berberak lortzeko, hezkuntzan eskainitako gaelikoak gora egin behar zuen nabarmenki. Izan ere, gaelikoa nagusi den mendebaldeko irletan biztanleen % 70ek gaelikoz hitz egiten zuten, baina umeen % 26k baino ez zituen bere ikasketak gaelikoz egiten.

Hedabideei dagokienez ere erabilerak gora egin zuen, eta horrela, hainbat katek gaelikoz eskaintzen zituzten saio batzuk. Horietako askok 1990eko Legearen bidez sortutako *Gaelic Broadcasting Committeeren* diru-laguntza jasotzen zuten, baina erakunde horrek hedabideetan eskaintzen zenaren inguruan botere murrizta zuen.

Kulturari begiratzen badiogu ikus dezakegu Eskoziako gobernuak ere laguntzak ematen zituela kultura zein hizkuntza sustatzeko. Hala eta guztiz ere, sektore pribatu eta boluntarioetan gaelikoaren erabilera oso murrizta zen. Are gehiago, gaelikoarekin lotutako musika eta ikus-entzunezko ekintzak askotan ingelesez egiten ziren, zoritxarrez.

Gobernuko, administrazioko eta justiziako erabilera erkatzen baditugu, berriro ere ateratzen da gaelikoa galesaren aurrean galtzaile. Euroituna berretsi baino lehenago, Eskozian ez zegoen 1993ko *Welsh Language Act* izenekoaren parekorik, nahiz eta *CNAGk* antzeko zerbait lotzeko ahaleginak egin zituen.

Auzitegietan ordura arte ingelesa baino ezin zen erabili. Horrenbestez, gaelikoz hitz egiten zutenek ez zuten inolako baimenik hizkuntza hori epaitegietan erabiltzeko, ingelesez gutxitxo hitz egiten zutela adierazi ezean. Hala ere, espresuki buruak baimena emanda,

parlamentuko kideek eztabaidetan eta batzordeetan gaelikoa erabil zezaketen.

Bestetik, prozedura legalei dagokienez, 2000. urtean gaelikoz arduratzen zen ministro-orde Alasdair Morrisonek lan-talde bat ezarri zuen, Eskozian gaelikoaren egoera zein erakundeei eman beharreko laguntza-egiturak aztertzeko eta Eskoziako ministroei etorkizuneko akordioetan aholkuak emateko. Lan-talde horrek *Revitalising Gaelic-A National Asset (Ag-Ath Bheothachadh Gàidhlig: Neamhnuid Nàiseanta)* izeneko txostena idatzi zuen eta horretan azpimarratu zuen gaelikoa egoera larrian zegoela eta gobernuaren laguntza jasotzen ez bazuen, ez zuela bizirik iraungo XXI. mendearen erdialdetik aurrera. Era berean, gaelikoa garatuko zuen agentzia sortzea gomendatu zuen. Baina erantzuna beste bat izan zen. 2001eko abenduan *Ministerial Advisory Group on Gaelic* sortu zuten, aurreko lan-taldeak egindako gomendioei jarraitzeko. Bigarren lan-talde horrek ere beste txosten bat aurkeztu zuen 2002ko maiatzean *A Fresh start for Gaelic (Cothrom Ur No Ghàidhlig)*. Horrek aurreko txostenaren kezka berberak azaleratu zituen eta gaelikoaren inguruko legea izateko beharra berriro azpimarratu zuen. Horri erantzuteko aurreko atalean aipatutako *Bord Gàidhlig na h-Alba* sortu zuen .

5.1.3. IRLANDAKO GAELIKOA

Lehenago esan bezala, nazionalismoarekin lotzen zutelako, Irlandako gaelikoa etsaitzat jotzen zuen gobernuak. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan nolabaiteko babesak lortu zuen; izan ere, eskola gehienak erlijio katolikoak diruz lagundutako eskola independenteak ziren. Lehenago esan bezala, gaelikoz irakasten zuten lehenengo eskolak Belfastekoak izan ziren eta hasierako horiek ez zuten gobernuaren inolako laguntzarik jaso. XX. mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, ordea, egoera pixkanaka-pixkanaka aldatzen hasi zen. Horrela, 1983an ikastetxeek gobernuaren diru-laguntza jasotzen hasi ziren. Nolanahi ere, Irlandako gaelikoak ikasgaia izaten jarraitzen zuen.

⁷² Ahalegin honetatik guztitik eratorri zen dagoeneko ezaguna zaigun 2005ean Eskoziako Parlamentuko eta geroago aipatuko dugun *Gaelic Language (Scotland) Act*.

Komunikabideei dagokienez, BBCK Irlandako gaelikoz eskaintzen zituen saioak oso gutxi ziren eta horietako asko etengabe errepikatzen zituzten. Kulturari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Ipar Irlandako Arte Kontseiluak beka batzuk ematen zituela hainbat ikuskizunetan-eta gaelikoa erabiltzeko. Azkenik aipatu behar dugu katolikoaren eta protestanteen Administrazio Kontseilua sortu zela gobernuaren diruarekin Ipar Irlandan gaelikoaren erabilera sustatzeko.

Irlandako gaelikoaren eta Ipar Irlandako Ulsterko scotseraren egoera erabat aldatu zen 1998ko Ostegun Santuan Erresuma Batuk eta Irlandak sinatu zuten Belfasteko Akordioaren bidez.⁷³ Hizkuntzaren auzia ere Akordioaren separata batean landu zuten eta horretan, besteak beste, esaten zen aniztasun linguistikoa errespetatzea garrantzitsua zela, Erresuma Batuko gobernuak gaelikoaren aldeko neurriak hartzeko konpromisoa hartuko zuela, hezkuntzaren bidez gaelikoa sustatzea derrigorrezkoa zela, gaelikoz telebistako saioak eta filmak egiteko laguntza emango zutela, etab.

Horietako konpromiso batzuk gauzatu ziren eta irla osoan gaelikoa sustatzeko xedea duen *Foras na Gaeilge* sortu zuten, bai eta Ulsterko scotsera sustatzeko xedea duen *Tha Boord O Ulster Scots* ere. Lehenengo horrek jasotzen zuen dirua irla osoan gaelikoa sustatzeko erabili behar zen.

5.1.4. SCOTSERA, ULSTERKO SCOTSERA⁷⁴ ETA KORNUBIERA

Hiru hizkuntzek zituzten ezaugarri komunak: denek zuten aitorza eta laguntza hutsaren hurrengoak ziren.

Scotsera, adibidez, ez zen ikasgaietako bat Eskoziako edo Ipar Irlandako eskoletan, nahiz eta ikasle askok Eskoziako literaturaren bidez ikasi. Hala ere, Eskoziako erakunde batzuek diru kopuru zehatza jasotzen zuten; *the Scottish National Dictionary Association* eta *Scots Language Resource Centre* direlakoek, kasurako.

⁷³ Bertako hainbat konpromisok eta xedapenek Euroitunean bildutakoarekin bat egiten dute.

⁷⁴ Irlandako scotsera izendatzeko erabiltzen den izena, guk ez dugu scotsera bien arteko bereizketarik egin.

Ipar Irlandako scotseraren egoera antzerakoa zen. Baina gorago aipatutako Belfasteko Akordioa berriz ere gogorarazi behar dugu. Bertan esaten zen garrantzitsua zela aniztasun linguistikoa errespetatzea eta aniztasun horren barruan Ulsterko scotsera ere bazegoen (Irlandako gaelikoarekin eta komunitate etnikoen hizkuntzekin batera). Eta horren ildotik, *Tha Boord O UsIter Scots* erakundea sortu zuten hizkuntza zein kultura hori sustatzeko asmoz. Horren pausuak jarraituta, hainbat ekimen jarri ziren abian; hiztegia, scotsera ama hizkuntzatzat zutenen grabazioak, etab.

Hori dela eta, ematen zuen garai bertsuan Ulsterko scotsera, Eskoziako scotsera baino hobeto zegoela, Ipar Irlandak hizkuntza horren aldeko politika gehiago sustatu zituelako.

Azkenik, kornubierari dagokionez esan behar dugu nahiz eta hizkuntza biziberritzeko ekimen ugari egin, horiek gauzatzeko estatutik jasotzen zuten laguntza oso eskasa izan zela. Kornubiera ez zegoen eskola curriculumen barnean, eta ondorioz, kornubiera arratsalde edo gaueko eskoletan ikasi behar zen. Hala ere, EBLULEk (*European Bureau for Lesser Used Languages*) nolabaiteko aitortza egin zion eta Kornualleseko Konderriko Kontseiluak (*Cornwall County Council*) kornubierari buruzko politika landu eta lurralde horretako sei eremuetatik lautan ezartzea onartu zuten.

5.2. ERRESUMA BATUAK ITUNAREN INGURUAN EGINDAKO BERRESPENA

Dakigunez, Euroitunak ez du eskubiderik aitortzen eta ez da juridikoki loteslea. Horrela, hasieran Europako Kontseiluak prestatu zuen Ituna estatuek borondatez sinatu eta berresten dute. Berrestean, testu horretan zehaztutako konpromisoetatik estatu bakoitzak testuaren lehenengo zatiaren arabera onartu dituen hizkuntza gutxituetarako, gutxienez, 35 hartu behar ditu⁷⁵.

⁷⁵ Baina 35 konpromiso horiek ez dute estatu horretako hizkuntza gutxitu guztietarako berberak izan behar eta baliteke, kasu honetan bezala, hizkuntza gutxitu baterako beste baterako baino konpromiso gehiago hartu izana. Hori guztia estatu horrek hizkuntza gutxitu bakoitzari egin nahi dion aitortza eta babes-mailaren arabera izango da.

Gauzak horrela, Europako Kontseiluko kide den Erresuma Batuak 2000ko martxoaren 2an sinatu eta 2001eko martxoaren 27an berretsi zuen Euroituna⁷⁶. Hori dela eta, Euroituna 2001eko uztailaren 1ean jarri zen indarrean⁷⁷.

Bestalde, Erresuma Batuak honako hizkuntza hauei dagokienez berretsi zuen Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna⁷⁸:

- Galesa (Galesen)
- Eskoziako gaelikoa eta scotsera (Eskozian)
- Irlandako gaelikoa eta Ulsterko scotsera (Ipar Irlandan)
- Kornubiera (Kornuallesen)
- Manxera (Man irlan)

Baina, hizkuntza horiek guztiak ez zituen modu berean eta data berean onetsi.

Scotserari (eta Ulsterko scotserari) dagokionez, lehenago esan bezala, Euroitunaren hizkuntza gutxituaren definizioarekin bat egitean, Erresuma Batuko hizkuntza gutxitua izatera pasatu zen, baina Erresuma Batuak ez zuen konpromiso zehatzik hartu.

Kornubierari dagokionez, ez zuten Itunaren lehenengo bertsioan kornubiera sartu, baizik eta geroago, 2003an, Europako Kontseiluak egindako adierazpen baten bitartez. Beraz, geroago Euroitunaren aplikazioa aztertzen dugunean, ez dugu kornubieraren inguruko informaziorik emango.

⁷⁶ Erresuma Batuak Kontseiluari aurkeztutako lehen agiri osoa eskuratzeko, ikus: http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/PeriodicalReports/UKPR1_en.pdf

⁷⁷ Hori lehenengo zikloari dagokionez; izan ere, Kontseiluko Adituen Batzordeak eta Ministroen Batzordeak ziklo bakoitzeko testuaren inguruan bere oharrak egiten dizkio Erresuma Batuari. Horrela, dagoeneko hiru ziklo jarri dira martxan eta laugarrena 2012ko maiatzean jartzea aurreikusita dago. Informazio guztia aztertzeko, ikus:

http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/default_fr.asp.

Edozelan ere, guk atal honetan lehenengo zikloko testua baino ez dugu aztertuko.

⁷⁸ Aurreko atalean aipatu bezala, etorkinek (horietako batzuk lehenago Erresuma Batukoak ziren lurraldeetako biztanleak) Erresuma Batura eramandako hizkuntzei (bengalera, punjabera, hindia, gujaratera, kasurako) ezin zaizkie ezarri Itunean islatutako printzipioak. Etorkinen hizkuntzak alde batera utzita, Erresuma Batuak bai onartu zuen zeinu-mintzaira hizkuntza gutxitutzat.

Eta manxerari dagokionez, Man irlako Ituna onestean, 2003an, Erresuma Batuko Koroako dependentzietako hizkuntza gutxitutzat onartu zuten. Kasu honetan ere, geroago Euroitunaren aplikazioa aztertzen dugunean, ez dugu manxeraren inguruko informaziorik emango.

Nahiz eta Euroitunaren sinadura eta berrespena oso ondo hartu zuten denek, Euroitunaren berehalako eragina ez zen oso handia izan. Hori zuzenean lotuta dago Erresuma Batuak Itunaren III. zatian deskribatzen dituen beharrekin. Izan ere, betebeharrak horiek gutxieneko batzuk baino ez ziren izan eta gutxieneko hizkuntza komunitateekiko nolabaiteko arduragabekeria erakusten jarraitu zuen, nahiz eta kontrako itxura eman nahi izan Ituna berrestean.

Euroituna berresteak eta III. zatian deskribatutako betebeharrak bere gain hartzeak zekarrena ordurako betetzat jo zuen Erresuma Batuak. Eta konpromisoak hartzeko, Dunbarrek bere artikuluan dioen bezala⁷⁹, ez zuten inolako kontsultarik edo negoziatorik egin hizkuntza gutxitu horietako komunitateekin (berak artikulua idatzi bitartean, behintzat). Eskozian, adibidez, garai hartako CNAG erakundeari bilkura baten bidez jakinarazi zitzaion III. zatiko betebeharrak gaelikoaren inguruan ere gauzatuko zirela; besterik ez. Irlandako gaelikoaren kasuan, ostera, hizkuntza horretaz arduratzen ziren hainbat erakunde jakinarazi zuten Itunaren III. zatian hartu nahi zituzten neurriak ez zetozeela bat benetako beharrekin eta hori guztia kontsulta egokia egin gabe ezarri zela.

Erresuma Batuak berak Europako Kontseiluari 2002an aurkeztutako txostenean esaten zuen galesaren kontseiluari (*Welsh Language Bord*) eta Ipar Irlandako departamentuari zein hainbat erakunderi kontsulta egin zela. Baina ez da guztiz egia eta egia izan da ere, ez zituzten horiek egindako oharrak kontuan hartu txostena idazteko.

Galesaren, Eskoziako gaelikoaren eta Irlandako gaelikoaren inguruan gauzatu beharreko zereginei dagokienez⁸⁰, Erresuma Batuak hartutako ikuspuntua oso murrizta izan zen. Itunaren berrespena

⁷⁹ Dunbar, Robert (2003): "The ratification by the United Kingdom of the European Charter for Regional or Minority Languages" in MERCATOR

⁸⁰ Gogoan izan dezagun, hiru hizkuntza horienak baino ez ditugula aztertuko.

hizkuntza gutxitu horiekiko jarreraren berrazterketatzat eta hobekuntza esanguratsuak lortzeko tresnatzat jo beharrean, III. zatiko paragrafo batzuk baino ez zituen onartu eta horiek gehienez lehenagoko egoera baino ez zuten islatzen (ez zuten ezer berririk ekarri). Beraz, Euroituna berretsi arren, hasiera batean ez Erresuma Batuko gobernuak, ez administrazio deszentralizatuek ez zuten inolako neurri garrantzitsurik hartu Euroitunera moldatzeko. Izan ere, Erresuma Batuko gobernuak 1998ko ekainean Euroituna sinatuko zuela esan zuenean sinetsita zeukan (edo hori sinetsi nahi izan zuen) Euroitunaren III. zatian islatzen ziren neurriak (adibidez, galesaren alde egiteko), jadanik hartuak zituela. Are gehiago, zati horretako 52 paragrafo eta idatz-zati onetsi zituen galeserako, baina ez zuen inolako neurri osagarririk hartu. Beraz, kontuan hartuta Galeseko Asanblada Nazionalaren eta Gobernuko Asanblada Nazionalaren helburua dela Gales erregio elebiduna izatea, Euroituna berrestean konpromiso gehiago hartu behar zituzten. Baina zoritxarrez ez zen horrela izan.

Eskoziako gaelikoari dagokionez, Erresuma Batuak oinarrizko ikuspegi berbera hartu zuen eta III. zatiko 39 paragrafo hartu zituen, Itunak hartzeko eskatzen dituen gutxieneko 35etik.

Gaelikoak garai hartan ez zuenez inolako presentziarik Eskoziako epaitegietan Erresuma Batuak ezin izan zuen Euroitunaren justiziarri buruzko 9. artikuluko xedapen bakarra ere onartu. Horrenbestez, Eskoziako gobernuak aldaketa txikia egin zuen ipar-mendebaldeko epaitegietako lekukoei gaelikoz hitz egiteko aukera emanaz, baina leku txiki batera mugatutako neurria izan zenez, ez zuen gaelikoz hitz egiten zuten guztiengan eraginik izan.

Ipar Irlandako gaelikoari dagokionez, Erresuma Batuak 36 paragrafo onetsi zituen, baina aldi berean ematen zuen agintariak ez zutela horien ondorioz inolako aldaketarik egiteko asmorik.

Azkenik esan behar dugu, Euroituna berresten duten herrialdeek Euroituna ezartzeko jarduera juridiko nagusia(k) martxan jarri behar dituztela eta aukera dutela berrespen-prozesua gidatu duten xedapen orokorrak komentatzeko. Hala bada ere, Erresuma Batuen txostenak Euroituna berretsi baino lehenagoko jarduera juridiko nagusiak baino ez zituen aipatu. Horrek argi eta garbi utzi

zuen ez zuela inolako neurri osagarririk hartu Euroituna berrestean. Gainera, ez zuen berrespen-prozesua gidatu zuten xedapen orokorrak komentatzeko parada aprobetxatu.

Erresuma Batuak aipatu hiru hizkuntza gutxitu horien inguruan bere egindako paragrafo eta idatz-zatiei dagokienez⁸¹, argi geratu da galesaren inguruan hartu zuela betebeharren kopururik handiena (52, alegia). Horretaz gain, esan behar dugu betebeharr horiek Irlandako gaelikoarentzat hartutakoekin erkatuta, galeserarako hartutakoak sendoagoak izan zirela. Eskoziako gaelikorako hartutakoak, ostera, erdibidean zeuden. Baina hizkuntza horietako bakoitzak momentu hartan zeukan laguntza ikusita, horixe baino ezin zitekeen espero.

Baina Itunaren lehen zatiaren definizioaren arabera, Erresuma Batuak definitutako hizkuntza gutxitu guztiei ezarri behar die Euroituna, eta definizio horren barruan scotsera, Ulsterko scotsera eta kornubiera ere sartu zituen. Baina dakigunez, estatuak hizkuntza horiei are babes maila txikiagoa eskaini zien eta ez zuten inolako politika argirik ezarri horiek garatzeko. Beraz, zaila da aztertzea hizkuntza horiei dagokienez Erresuma Batuak zuen politika. Hala eta guztiz ere, Euroituna horiei ere ezartzea (batzuen kasuan geroago bada ere) nahiko esanguratsua eta garrantzitsua da; batetik, horren bidez Euroitunak onartzen duelako scotsera eta Ulsterko scotsera hizkuntzak direla, eta bestetik, kornubierak eta manxerak babes-neurriak behar zituzten hizkuntza biziak direla onartu zutelako.

Bestalde, lehenago aipatutako ezaugarri bati berrekin behar diogu. Izan ere, 7. artikuluan esaten da estatuak hizkuntza gutxitu horiek erabiltzen dituzten taldeen behar eta gurariei erantzun behar dietela, baina lehenago esan bezala, Erresuma Batuko gobernuak eta administrazio deszentralizatuek txostena prestatzean ez zuten inolako harremanik izan aipatu talde horiekin eta beharrak zein gurariak haien behar zein gurarien arabera ezarri zituzten. Era berean, 7. artikulua horretan estatuei bultzada ematen zaie hizkuntza gutxitu horien inguruan erakunde-aholkulariak sortzeko. Betekizun hau, ordea, bai bete zuen Erresuma Batuak. Horrela, Eskoziako

⁸¹ Erresuma Batuak hizkuntza gutxitu bakoitzerako hartutako konpromisoak zeintzuk diren jakiteko, ikus:

<http://conventions.coe.int/Treaty/Commun/ListeDeclarations.asp?NT=148&CM=1&DF=2/27/2008&CL=FRE&VL=0>.

gaelikorako *Bòrd na Gàidhlig* sortu zen, Irlanda osorako *Foras na Gaeilge* eta *Tha Boord O* Ulsterko scotserarako eta galeserako *Galesen Bwrdd yr Iaith Gymraeg*⁸². Gaelikorako erakundeak legetan definitutako boterea zuen, baina Irlandako osorako eta Ulsterko scotserarako erakundeen boterea ez zen hain zabala eta galeserako erakundearena ez zegoen ondo definituta. Gainera, kideak ez ditu hizkuntza komunitateak aukeratzen, baizik eta tokiko gobernuak. Berriz ere konparaketa egiten badugu, atzera ikusiko dugu Galeseko erakundeak irabazi zuela, besteek botere murrizagoa zutelako edota kornubiera eta scotsera bezalako hizkuntzek ez zutelako (hasieran, behintzat) hizkuntza horiek babesteko inolako erakunderik.

Azter ditzagun berriro ere banan-banan Euroitunak zein ezarpen maila izan zuen hizkuntza gutxitu bakoitzean:

5.2.1. GALESA

Lehenago aipatu dugun bezala, galesa hizkuntzarako 52 paragrafo edo idatz-zati onetsi zituen Erresuma Batuak. Hezkuntzari dagokionez, xedapenik sendoenak haurreskola, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako ezarri zituen. Galesak ordurako hezkuntzan egoera pribilegiatua zuenez, neurri horiek egokiak izan ziren⁸³.

1993ko Galeseko Lege Linguistikoari esker, ordurako galesak justiziaren esparruan ere nahiko egoera ona zuen. Eta horri jarraituta, nahiko neurri zorrotzak hartu zituzten. Hala ere, prozedurak galeseraz egiteko neurria, zorrotzenetan zorrotzena izango litzatekeena, ez zuen onartu.

Konpromiso gehien, bestalde, 10. artikuluan hartu zituen. Eta hori egokia da, Gales elebiduna izateko asmoarekin bat egiten duelako. Horretarako, Erresuma Batua 1993ko Galeseko Lege Linguistikoan oinarritu zen. Baina gakoa da, zalantzarik gabe, bertan agertzen dena egia bihurtzea.

⁸² Geroago, 2008an, kornubierarako *The Cornish Language Partnership* erakundea sortu zen. Horrek Kornuallesko hizkuntza eta kultura nagusiak ordezkatzen ditu, bai eta hizkuntzarekin tokiko gobernuaren beharrak ere. Gainera, Erresuma Batuko dirua jasotzen du eta idazteko modu estandarra arautzen du.

⁸³ Goragoko mailetan eta hezkuntza teknikoan, ostera, konpromisoak ez ziren hain sendoak izan.

11. eta 12. artikuluei dagokienez, berriz, esan behar dugu Erresuma Batuak konpromisorik sendoenak hartu zituela. Eta horiek ere egokiak dira galesak komunikabideen eta kultura jardueren inguruan zuen egoera eta laguntza kontuan hartzen baditugu.

Ekonomia- eta gizarte-bizitzaren inguruko artikulua, ordea, ez zein hain zorrotza izan, eta hori ere nahiko ohikoa da kontuan hartzen badugu galesa ez zela sektore pribatuan edo boluntarioan arautu.

Azkenik aipatu behar dugu Erresuma Batuak ez zuela 14. artikuluari (mugaz haraindiko elkartrukeak) buruzko inolako konpromisorik hartu.

5.2.2. ESKOZIAKO GAELIKOA

Dakigunez, galesarekin erkatzen badugu, Eskoziako gaelikorako hartutako konpromisoak ez ziren hain sendoak izan. Gaelikoaren garapena gehienbat hezkuntzan eta komunikabideetan (batez ere, telebistan) oinarritzen zen. Hori dela eta, ez da batere harritzekoa konpromiso gehienak 8. eta 11. artikuluetan hartu izana. Eta hartutako konpromisoen arabera, hezkuntza gaelikoz egin ahal izatea ohiko egoera eta joera nagusia izan behar zen garai horretan Eskozian, baina dakigunez egoera ez zen benetan horrelakoa izan.

Hedabideei dagokienez, Erresuma Batuak ez zituen hain konpromiso zorrotzak hartu eta zehaztu zuen neurri egokiak hartuko zituela zerbitzu publikoek Eskoziako gaelikoz saioak eskaintzeko eta irrati zein telebista saioak sustatzeko. Hala ere, horrek ez zuen hizkuntza horren egoera islatu zuten txosten bietan ezarritakoarekin eta benetako egoerarekin bat egin; izan ere, txostenak gomendatu zuen irrati independente gaelikoa sortzea.

Gainontzeko artikuluen inguruan, Erresuma Batuak oso konpromiso xumeak hartu zituen. 10. artikuluan, adibidez, 10 paragrafo edo idatz-zati onartu zituen, baina benetan organismo publikoen erabilera ezerezean geratu zen.

5.2.3. IRLANDAKO GAELIKOA

Irlandako Gaelikoari dagokionez esan behar dugu aurreko konpromisoetako asko berberak izan zirela, nahiz eta hiru gutxiago izan (guztira, 36 Irlandakorako) eta betebeharrak horiek "ahulagoak" izan. Horrek garai hartako egoera islatzen du; izan ere, Eskoziako gaelikoak hezkuntzan ez ezik, gainontzeko esparruetan ere Irlandako gaelikoak baino egoera hobea bizi zuen eta.

Irakaskuntzari buruzko 8. artikularen inguruan onartutakoa bitxia da, Irlandako gaelikoak Eskoziakoa baino egoera hobea zuen eta. Eskola gehiagotan irakasten zen Irlandako gaelikoa zein Irlandako gaelikoz eta ikasle gehiagok zuten hizkuntza hori hitz egiteko gaitasuna, baina Erresuma Batuak Irlandako gaelikoren inguruan onartutakoa Eskoziako gaelikorako onartutakoa baino murriztagoa izan zen, nahiz eta Erresuma Batuko gobernuak ez onartu hori egin zuela.

Irakaskuntza alde batera utzita, gainontzeko sektoreetako egoera, esan bezala, are kontrakoagoa izan zen eta Erresuma Batuak ahalik eta konpromisorik baxuenak hartu zituen. Edozelan ere, zaila izango zen Erresuma Batuko gobernuarentzat konpromiso ahul horiek bete zirela egiaztatzea. Horrekin lotuta, 9. artikuluan (justizia) gutxieneko betebeharrak batzuk onartu zituen eta horien arabera testurik garrantzitsuenak eta batik bat irlandarrekin zerikusia zutenak Irlandako gaelikora itzuli behar zituen, baina hasiera horretan hiru baino ez zituen itzuli (nahiz eta Kultura Saila beste batzuk itzultzen hasi).

Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak izeneko 10. artikuluari dagokionez ere betebeharrak hartu zituen, baina tokiko administrazio batzuek ez omen zuten ulertu betebeharrak horiei jarraiki jardun behar zutela. Horrela, herritarrek eskutitzak gaelikoz bidali eta erantzuna ingelesez jasotzen zituzten.

Komunikabideei buruzko konpromisoak ere zalantzazkoak izan ziren; izan ere, oso irrati eta telebista gutxi eskaintzen zen gaelikoz.

Azkenik, kultur jardueren eta ekipamenduen inguruan babes handia eman zitzaien Ipar Irlandako Arte Kontseiluari eta zenbait

tokiko liburutegiri. Hala ere, gaelikoaren aldeko hainbat elkarte kexu agertu ziren gaelikoaren aldeko politikak sustatzeko babes faltagatik.

5.3.EUROITUNAREN INGURUKO AZKEN HITZAK

Hamaika aldiz errepikatu dugun bezala, Erresuma Batuak mendeetan errespetu gutxi erakutsi du hizkuntza gutxituen alorrean.

Galesaren egoera pixka bat pribilegiatua izan arren, hizkuntza bakoitzak alorren batean edo besteren batean hutsune nabariak izan ditu (edota ditu oraindik ere) hizkuntza hori modu egokian sustatu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Euroituna berrestea aurrerapauso nabaria izan behar zen teorian, gutxienez, galeserako, Eskoziako gaelikorako eta Irlandakorako, baina Erresuma Batuak ahalik eta konpromiso txikienak eta ahulenak hartu zituenez hainbat alorretan, egoerak oso modu apalean egin zuen onera.

Scotserarako eta kornubierarako (eta ondoren manxerarako), ordea, aurrerapauso nabaria izan zen, lehenengoz hizkuntza gutxitutzat jo zituztelako, eta ondorioz, horiek sustatzeko politikak martxan jarri behar zituztelako.

6. GEROAGOKO BESTE ITUN EDO AKORDIO BATZUK

Dagoeneko oin-ohar batean azaldu badugu ere, zehaztu dezagun berriro ere Euroitunak izan dituen zikloak. Lehenengo zikloa Erresuma Batuak Euroituna berretsi zuenean, 2002ko uztailaren 1ean, hasi zen. Orduetik beste hiru ziklo jarri dira martxan Adituen Batzordeak eta Ministroen Batzordeak ziklo bakoitzeko testuaren inguruan bere oharrak egiten ostean. Eta laugarrena 2012ko maiatzean indarrean jartzea aurreikusita dago. Batzorde bi horiek testu bakoitzean antzemandako akatsak eta hutsuneak jakinarazten dizkiote Erresuma Batuari eta Erresuma Batuak, printzipioz, gomendio horien arabera moldatu behar ditu hartu beharreko konpromisoak eta zereginak.

Baina Erresuma Batuko gobernu zentralaz gain, garatutako administrazio nazionalak ere badaude eta Erresuma Batuko hizkuntza gutxituak banan-banan azaldu ditugunean ikusi dugunez, galesaren eta Eskoziako gaelikoaren kasuan, Euroitunaren berrespenaren ostean hizkuntza horietarako tokiko administrazio deszentralizatuek ere beste Itun bana onetsi dute.

Horrela, Galeseko Asanbladak beste aurrerapauso bat eman zuen galesa hizkuntza ofiziala izateko legea eta hizkuntza hori sustatzeko neurri osagarriak biltzen zituen 2010eko abenduan aho batez *The Welsh Language Measure 2010*⁸⁴ onetsi zuenean. 2011ko otsailaren 9an neurri horiek Erreginararen onespina lortu zuten eta horrek esan nahi du monarka konstituzionalak ofizialki Asanbladaren neurri horiek onartu eta aldarrikatu zituela, eta ondorioz, legea egin eta hizkuntza horri ofizialtasuna eman ziola. Legeak sarreran honelaxe dio:

A Measure of the National Assembly for Wales to make further provision about the official status of the Welsh language in Wales; to establish the Office of Welsh Language Commissioner; to provide for an Advisory Panel to the Welsh Language Commissioner; to make provision about promoting and facilitating the use of the Welsh language and promoting

⁸⁴ Testu osoa jasotzeko, ikus:

<http://www.legislation.gov.uk/mwa/2011/1/contents/enacted> edo

<http://www.assemblywales.org/ms-ld7944-e.pdf>

equality between the Welsh and English languages; to make provision about standards relating to the Welsh language; to make provision about investigation of interference with the freedom to use the Welsh language; to establish a Welsh Language Tribunal; to abolish the Welsh Language Board and Welsh language schemes; and for connected purposes.

Bertan argiro agertzen dira zeintzuk diren Lege horren helburuak; neurriak hartzea Galesen galesaren ofizialtasuna areagotzeko, gales hizkuntzaren aldeko komisario-bulegoa sortzeko, erakunde horri laguntzeko aholkularitza-taldea sortzeko, galesaren erabilera sustatzeko eta ingelesarekiko berdintasuna azpimarratzeko, kasurako.

Horrek berriro argi eta garbi adierazten du galesaren egoera pribilegiatua eta pentsatzekoa da indarrean jartzen den momentutik, Galeseko gobernuak bertan islatutako guztia garatzeko prozedurak martxan jarriko dituela eta hizkuntzaren egoerak hobera egingo duela nabarmenki.

Eskoziako gaelikoaren kasuan, berriz aipatu behar dugu 2000. urtean gaelikoz arduratzen zen ministro-orde Alasdair Morrisonek lan-talde bat ezarri zuela, Eskozian gaelikoaren egoera zein erakundeei eman beharreko laguntza-egiturak aztertzeko eta Eskoziako ministroei etorkizuneko akordioetan aholkuak emateko. Talde horrek txosten bat idatzi zuen, eta ondoren, beste txosten bat idatzi zuen beste lan-talde bat eratu zuten. Txosten bietan azaltzen zen gaelikoaren egoera larria zela eta hizkuntza hori sustatzeko neurriak lehenbailehen hartu behar zituztela. Ohar horien ondorio izan zen 2005ean Eskoziako Parlamentuak onetsi zuen *Gaelic Language (Scotland) Act*⁸⁵ izenekoa. Kontua da Eskoziako gaelikoa ez zegoela galesaren egoera pribilegiatuan, beraz, lege hori indarrean jarrita ere, gaelikoak oraindik bide luzeagoa du egiteke.

Azkenik, Ipar Irlandako gaelikoaren kasuan, tamalez, ez da antzeko legerik onartu.

⁸⁵ Testu osoa jasotzeko, ikus:

http://www.legislation.gov.uk/asp/2005/7/pdfs/asp_20050007_en.pdf

7. AZKEN GOGOETA

Zaila da esatea (ezinezkoa, agian hobeto), nolabaiteko azterketa idatzi batean oinarritu gabe, 2001etik hona hizkuntza gutxi horiek zein bilakaera izan duten; izan ere, Erresuma Batua Euskal Herritik milaka kilometrora dago, eta hizkuntza gutxituak diren heinean nolabaiteko kidetasuna izanik ere, hizkuntza horiek arrotzak egiten zaizkigu.

Nolanahi ere, saia gaitezen aurreko ataletan azaldutakoari jarraiki ondorioak ateratzen:

Dagoeneko ikusi ahal izan dugun bezala, Erresuma Batuko hizkuntza gutxitu bakoitzaren egoera ezberdina izan da eta oraindik ere bada. Azken urteetan, hizkuntza horiek bizirik irauteko eta sustatzeko egin diren ahaleginak alde batera utzita, milaka urtetan Erresuma Batuko gobernuak bazter batean utzi nahi izan dituela argi dago. Izan ere, hainbat mendetan haien kontra martxan jarritako estatu-politiken bidez, hizkuntza horiek milaka hiltun galdu dituzte, besteak beste. Horrek seguruenik zerikusia du Nazioartean ingelesak duen garrantziarekin; izan ere, dakigun bezala, gehien erabiltzen diren hizkuntzen artean bigarrena da. Gauzak horrela, ingelesek ez dute munduan duten garrantzi hori galdu nahi eta seguruenik uste dute hizkuntza gutxituei garrantzia emanaz, erregio horretako hiltunek hizkuntza horietan hitz egingo dutela, eta ondorioz, ingelesak hiltunak galdu eta arriskua egoera izango duela. Hori dela eta, saiatzen da hegemonia hori mantentzen, hizkuntza gutxituen alde argiro egin barik.

Edozelan ere, duela urte batzuk (XX. mendearen amaieran eta batez ere XXI. mendearen hasieran), zorionez, gauzak aldatzen hasi ziren eta Nazioarteko ordenamenduari eta hizkuntza gutxitu horietako agente sozial zein politikoei esker, hizkuntza horiek nolabaiteko biziberritze prozesua izan dute. Hala eta guztiz ere, egoera oraindik ez da hizkuntza gutxituetako hiltunoi gustatuko litzaigukeen bezain ona.

Gainera, Erresuma Batuak hizkuntza horiek suspertzeko imintzioa egin du Euroituna berrestean, baina kontuan hartuta behar dugu Europako Kontseiluak Euroituna sinatu zuenetik Erresuma

Batuak berretsi arte ia-ia hamarkada luze bat igaro zela. Gainera, berretsita ere, mailarik xumeena onartzen saiatu da, ahalik eta aldaketa gutxien egin behar izateko. Beraz, espero izatekoa zen Itun horren bidez Erresuma Batuak hizkuntza gutxituei nolabaiteko aitortza egitea, baina ez egitea egun batetik bestera. Eta horrelaxe izan da, ikusi dugun bezala, hasiera batean hartutako konpromisoak kasu askotan hutsaren hurrengoak izan baitziren, ordurako zeukaten egoera ez aldatzeko modukoak. Egoera hori aldatzeko eta Erresuma Batuak konpromiso gehiago hartzeko, Adituen Batzordeak eta Ministroen Batzordeak egindako oharrak daude eta horrela lortu dute Euroitunak lau fase ezberdin izatea.

Egoerari behingoz buelta emateko, batik bat, hizkuntza gutxituetako eragile sozial eta politikoak daude. Horiek haien ahaleginarekin jarraitu behar dute, harik eta gobernu zentralak benetako osoko politika bere gain hartu arte. Hori gertatzen den bitartean, badirudi hizkuntza gutxituak sustatzeko eskumena hizkuntza gutxitu horietako tokiko administrazioen eskuetan dagoela eta horrelaxe egin dute Galesen galesarekin eta Eskozian gaelikoarekin, adibidez.

Hizkuntza gutxitu bakoitzari banan-banan erreparatuta, lehenengo eta behin errepikatu behar dugu galesa dela Erresuma Batuko hizkuntza gutxituetan egoera onena bizi duena. Horixe aipatu dugu Euroitunaren berrespena aztertu dugunean eta Galeseko Asanbladak 2010ean onetsitako legea (*The Welsh Language Measure 2010*) aipatu dugunean. Gainera, azken hori indarrean jartzen denean, bertan islatutako guztia gauzatzen bada, martxa egokia hartu dutela eta galesaren egoerak hobekuntza handia nabarituko duela aurreratu dezakegu.

Eskoziako gaelikoa, ordea, ez du hain egoera pribilegiatua izan. Gainera, Alasdair Morrison ministro-ordeak eraturako lan-talderen *Revitalising Gaelic-A National Asset (Ag-Ath Bheothachadh Gàidhlig: Neamhnuid Nàiseanta)* txostena gogorarazi behar dugu. Bertan azpimarratu zuten gaelikoa egoera larrian zegoela eta hizkuntza-politika egokiak martxan jarri eta gobernuaren babes egokia eduki ezean, XXI. mendearen erdialderako gaelikoa desagertuko zela. Oraindik ez gara XXI. mendearen erdialdera iritsi, baina txosten horren eta hurrengo baten ildotik gaelikoak 2005ean lehenago

aipaturako beharrezko gobernuaren babesak lortu zuen Eskoziako Parlamentuak onetsi zuen *Gaelic Language (Scotland) Act* izenekoaren bidez. Argi dago gaelikoaren egoera ez dela galesarena bezain ona, baina lortu du tokiko administrazioak indarrean jarritako legeen bidez hainbat esparrutan gaelikoak aurrera egitea. Hala ere, galesaren egoerara heltzeko, gaelikoak oraindik bide luzea du egiteke.

Irlandako galekoa, berriz, ez dago hain egoera onean eta, itxuren arabera, garai bateko arazo politiko eta erlijiosoen ondorioz ez du lortu ezta tokiko administrazioak ere bertako hizkuntzaren aldeko politika argirik izatea. Beraz, Eskoziako gaelikoak oraindik ere bide luzea badu egiteko, are luzeagoa du Irlandako gaelikoak, lehen-lehenik tokiko administrazioaren babes egokia lortu behar du eta.

Azkenik, scotsera, kornubiera eta manxera daude. Azken bi horiek berpiztutako hizkuntzak dira, eta ondorioz, ez daude egoera berean. Hitzunen babesak dute, baina administrazioarena eta legeena beste kontu bat da. Eta scotseraren kasuan, Erresuma Batuak onartu du ingelesetik bereizten den hizkuntza dela, baina ez omen dauka horren aldeko politika argirik. Beraz, hizkuntza hauen kasuan egin beharreko bidea luze-luzea da.

Gauzak horrela, argi dago oraindik ere Erresuma Batuan hizkuntza gutxituei dagokienez asko dagoela egiteko. Aurrerapauso gutxi batzuk eman dira, eta berandu bada ere, bide onetik doaz. Horrenbestez, eragileek gogor ekin behar diote Erresuma Batuko gobernuak benetako hizkuntza-politika sustatzeko, hurrengo urte zein mendeetan hizkuntza gutxituetako hiztunak gero eta gehiago izateko eta hizkuntza gutxitu horiek gero eta esparru gehiagotan erabiltzeko. Hizkuntzen ekologiaren ildotik, Erresuma Batuak onartu beharko luke, hizkuntza gutxituei babesak emanez, ingelesak ez duela Nazioartean daukan indarra galduko, hizkuntza bakoitza esparru zehatz batean erabiliko litzatekeelako eta denak elkarrekin bizitzea posible delako.

8. BIBLIOGRAFIA

http://www.amarauna-languages.com/orokorra/mapa_ikusi2.php?hizk=eu&familia=1

<http://www.assemblywales.org/bus-home/bus-legislation/bus-leg-measures/business-legislation-measures-wl.htm>

http://www.bbc.co.uk/languages/european_languages/countries/uk.shtml

<http://www.behatokia.org/graf/..%5Ctxostenak%5CITUN%20KONSTITUZIONALAREN%20AZTERKETA%20OSOA.pdf>

http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/default_en.asp#United

http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/Periodicals/UKPR1_en.pdf

http://www.coe.int/t/dghl/monitoring/minorities/1_atglance/PDF_Text_FCNM_es.pdf

<http://www.communities.gov.uk/documents/communities/pdf/152275.pdf>

<http://consilium.europa.eu/uedocs/cmsUpload/cg00002re01en.pdf>

<http://conventions.coe.int/Treaty/Commun/ListeDeclarations.asp?PO=UK&NT=&MA=6&CV=1&NA=&CN=999&VL=1&CM=5&CL=ENG>

<http://conventions.coe.int/treaty/Commun/ListeDeclarations.asp?NT=148&CM=1&DF=&CL=ENG&VL=1>

http://ddhh.asmoz.org/index.php?option=com_content&task=view&id=90&Itemid=72&lang=eu

http://www.direct.gov.uk/en/Governmentcitizensandrights/LivingintheUK/DG_10012519

http://www.ethnologue.com/show_country.asp?name=GB

http://en.wikipedia.org/wiki/Linguistic_rights

http://en.wikipedia.org/wiki/Universal_Declaration_of_Human_Rights

http://en.wikipedia.org/wiki/International_Covenant_on_Civil_and_Political_Rights

http://en.wikipedia.org/wiki/Council_of_Europe

[http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_of_London_\(1949\)](http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_of_London_(1949))

http://en.wikipedia.org/wiki/European_Convention_on_Human_Rights

http://en.wikipedia.org/wiki/Framework_Convention_for_the_Protection_of_National_Minorities

http://en.wikipedia.org/wiki/European_Charter_for_Regional_or_Minority_Languages

http://en.wikipedia.org/wiki/Treaties_of_Rome

http://en.wikipedia.org/wiki/Single_European_Act

http://en.wikipedia.org/wiki/Maastricht_Treaty

http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_of_Amsterdam

http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_of_Nice

http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_establishing_a_Constitution_for_Europe

http://en.wikipedia.org/wiki/Treaty_of_Lisbon

http://en.wikipedia.org/wiki/Universal_Declaration_of_Linguistic_Rights

http://en.wikipedia.org/wiki/Welsh_language#cite_note-10

http://en.wikipedia.org/wiki/Scots_language

http://en.wikipedia.org/wiki/Scottish_Gaelic

http://en.wikipedia.org/wiki/Irish_language

http://en.wikipedia.org/wiki/Cornish_language

http://en.wikipedia.org/wiki/Manx_language

[http://en.wikipedia.org/wiki/Gaelic_Language_\(Scotland\)_Act_2005](http://en.wikipedia.org/wiki/Gaelic_Language_(Scotland)_Act_2005)

http://europa.eu/scadplus/constitution/introduction_es.htm

http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/68377.pdf

<http://www.hikhasi.com/docs/55/DEKLARAZIOA.pdf.pdf>

<http://www.historiasiglo20.org/europe/traroma.htm>

<http://www.humanrightseurope.org/2011/03/media-frenzy-greets-minority-protection-delegation-on-uk-visit/>

http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Sexu-berdintasunari%20buruzko%20arauak/3.GIZA_ESKUBIDEEN_ADIERA_ZPEN_UNIBERTSALA.pdf

http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Sexu-berdintasunari%20buruzko%20arauak/4.ESKUBIDE_ZIBILEN_ETA_POLITIKOEN_NAZIOARTEKO_ITUNA.pdf

http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Sexu-berdintasunari%20buruzko%20arauak/5.EKONOMIA-,GIZARTE-ETA_KULTURA-ESKUBIDEEN_NAZIOARTEKO_ITUNA.pdf

http://www.legislation.gov.uk/asp/2005/7/pdfs/asp_20050007_en.pdf?timeline=true&view=interweave

<http://www.legislation.gov.uk/mwa/2011/1/contents/enacted>

<http://www.legislation.gov.uk/asp/2005/7/contents>

<http://www.leeds.ac.uk/law/hamlyn/european.htm>

<http://www.ohchr.org/EN/UDHR/Pages/Language.aspx?LangID=bsq>

http://www.siryfflint.gov.uk/wps/portal/english/services?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/Web+Content/Flintshire/English/Services/100003/Welsh+language

<http://www.uoc.edu/euromosaic/web/homect/index1.html>

<http://www.unesco.org/cpp/sp/declaraciones/linguisticos.htm>

<http://wales.gov.uk/newsroom/welshlanguage/2011/110211welshlang/?lang=en>

<http://www2.ohchr.org/english/law/ccpr.htm>

<http://www2.ohchr.org/english/law/minorities.htm>

BILBAO, P. eta KASARES, P. (2008): "3.4. Hizkuntza eskubideen eta lege estatusaren egoera Euskal Herrian" in *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Davyth A. Hicks (2005) "Còrnica: Llengua i legislació" in MERCATOR (<http://www.ciemn.cat/mercator/>)

Dunbar, Robert (2003): "The ratification by the United Kingdom of the European Charter for Regional or Minority Languages" in MERCATOR (<http://www.ciemn.cat/mercator/>)

CIEMEN (2003). *Aproximació a l'Europa de les Llengües* (Mapa). Barcelona: (<http://www.ciemn.cat/mercator/>)

EUROMASAIC: "Le cornique au Royaume-Uni"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/cornic/fr/i1/i1.html>)

EUROMASAIC: "Le gaélique en Ecosse"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/gaelic/fr/i1/i1.html>)

EUROMASAIC: "Gaelic language use survey"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/gaelic/an/e1/e1.html>)
)

EUROMASAIC: "Le gallois au Royaume-Uni"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/gales/fr/i1/i1.html>)

EUROMASAIC: "Welsh language use survey"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/gales/an/e1/e1.html>)

EUROMASAIC: "L'irlandais gallois au Royaume-Uni"
(<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/irlandes/fr/i2/i2.html>)
)

SANMARTI ROSET, Josep M. (1996): *Las políticas lingüísticas y las lenguas minoritarias en el proceso de construcción de Europa*. Bilbo. IVAP.